

Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Igantzi



Aurkibidea

Udalerria: Igantzi

Sarrera



Nafarroako ipar-
mendebaldean dagoen
udalerri euskalduna da,
Bortziriak eskualdekoa.
Euskal hiltunen ehuneko
esanguratsua duenez,
UEMAko (Udalerri
Euskaldunen
Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 632
- **Euskaldunak:** %91,92

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **14**
- Zintak: **29**
- Pasarteak: **500**
- Transkribatutakoak: **27**
- Audioak: **27**
- Bideoak: **473**

Proiektuak

- Bortzirietako ahozko ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990

Hizlariak



Jose Luis Antxordoki Etxeberria (1944)

Igantzin sortu zen, Agerrean. Guaso biak Igantzikoak zituen.



Agustin Antxordoki Irigoien (1914-2011)

Igantzin sortu zen, Olaetxeberrian. Guraso biak Igantzikoak zituen.



Joxepa Etxeberria Mendigutxia (1949)



Inaxi Etxeberria Telletxea (1916-2019)

Igantzin sortu zen, Iriberean. Guraso biak Igantzikoak zituen.

Maritxu Etxeberria Telletxea (1920)



Iriberea baserrian jaioa, gurasoak bertakoak zituen. Lau senide ziren. 14 urterekin neskame joan zen Iruñeara. Mahaiak zerbitzatzen ere ibili zen. Pasaiaiko arrantzale batekin ezkondu zen, Herrerara, eta hiru seme izan zituzten.

IGA-027 Hizlari ezezaguna

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Igantzin jasotako lekukotza anonimoak.



Euxtakio Iguzkiagirre Zozia (1928)

Igantzin sortu zen, Mikelenean. Guraso biak Igantzikoak zituen.



Elvira Iturria Madariaga (1926-2017)

Igantzin sortu zen, Goienetxean. Guraso biak Igantzikoak zituen.



Dolores Retegi Telletxea (1923)

Igantzin sortu zen, Argatan. Ama Igantzikoa zuen eta aita Oiartzungoa.



Jesus Mari Sein Larretxea (1932-2020)

Igantzin sortu zen, Argataberean. Guraso biak Igantzikoak zituen.



Juan Sein Sansiñena (1938-2020)

Igantzin sortu zen, Argatan. Guraso biak Igantzikoak zituen.



Manuela Sein Sansiñena (1940)

Igantzin sortu zen, Mendibilen. Guraso biak Igantzikoak zituen.



Oskar Txoperena Mendigutxia (1960)



Patxi Txoperena Urrutia (1917-2012)

Igantzin sortu zen, Martinlabenan. Ama Mezkitritzekoa zeun eta aita Igantzikoa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Saskigileak (IGA-002/001)

Aita saskigilea zen; hil zenean, bera hasi zen saskiak egiten, jostetan bezala, zortzi edo hamar urte zituela. Igantziko etxe gehienetan egiten zituzten saskiak eta barrikak egiteko aroak ere.

2. Arantzara hagak saltzera (IGA-002/003)

Arantzan ez zen saskigile anitz. Hamar urterekin, Arantzara joaten zen oinez hagak saltzera. Bakoitzak zenbat balio zuen jakiteko markak zeuden: lau koska bazituen, pezeta bat; zortzi koska, bi pezeta. Arantzakoek gaztainak hartzeko erabiltzen zituzten hagak.

3. Saski klaseak (IGA-002/004)

Egiten zituzten saski klaseak aipatzen ditu: besteak beste, bizkar-saskiak, ertainak, mea-saskiak eta arrain-saskiak.

4. Saskiak zertarako erabiltzen ziren (IGA-002/005)

Saskiak zertarako erabiltzen ziren azaltzen du. Esate baterako, gorotza zabaltzeko. Arantzan nola goroztatzen zuten azaltzen du. Bizkarka egiten zen dena. Denak ilaran jartzen ziren; saskia gorotzaz betetzen zen eta bata besteari ematen zioten. Lurra ateratzeko ere erabiltzen ziren saskiak, bizkarka.

5. Saskien tamaina (IGA-002/006)

Goroztatzeko saskien neurria: 70 bider 70; mea-saskiena, berriz, 56.

6. Saskiak egiteko egurra (IGA-002/007)

Bertatik eta Goizuetatik ere bai ekartzen zuten egurra. Irailan hasi eta otsail arte izaten zen tenorerik hoberena saskiak egiteko egurra mozteko. Ilargiari begiratzeko zioten; ortziraletan ilargia aldatzen zen. Besteak beste, pipiak ez ateratzeko begiratzeko zitzaion ilargiari.

7. 500 saski erre (IGA-002/008)

Eginak zituen 500 arrain-saski erre behar izan zituen behin, arrantzaleek denboraldi batez (graba egin zutela-eta) ez zituztelako erosten eta polillak (pipiak) atera zitzaizkielako.

8. Arrain-saskiak (IGA-002/009)

Antxoentzako saskiak bereziak ziren; erdian helduleku bat zuten.

9. Egurra prestatu (IGA-002/010)

Biltzen zuten egurra etxe ondoko putzu batean sartzen zuten. Idortzen zenean, handik ateratzen zuten eta labean baporean egosten zuten. Gero matxetea erabiltzen zuten irekitzen hasteko eta "hazia", berriz, apaintzeko; nabala ere erabiltzen zuten.

10. Saskiak egiten hasi 1 (IGA-002/012)

Egurra prest zegoenean, saskiak egiten hasten zen. Lurrean paratzen zuen egurra eta gurutzatuz joaten zen. Moldeak erabiltzen zituen askotan.

11. "Hazia" tresna (IGA-002/013)

Egurra apaintzeko "hazia" izeneko tresna erakusten du.

12. Neurriak hartzeko makila (IGA-002/015)

Neurriak hartzeko erabiltzen zuen makila erakusten du.

13. Saskiak egiten hasi 2 (IGA-002/016)

Behin neurria hartuta, saskia egiten hasten zen. Nola egiten zuen azaltzen du. Lehenengo ipurdia eta gero goratzen hasten da

14. Beti saskigilea izan da (IGA-002/017)

Bera beti saskigilea izan da. Morroi bat zuen etxeko azienden lanak egiteko; emakumeak, etxeko lanaz gain, behiak jetzi eta beste hainbat lan egiten zituen.

15. Aroa nola egiten zen (IGA-002/018)

Aroa nola egiten zen azaltzen du. Egun batean 40 edo 50 egiten zituen.

16. Zenbat saski egunean (IGA-002/019)

Egunean bederatzi bat saski egiten zituen. Peoia hartu zuenean, berriz, 18 inguru egiten zituzten egun batean.

17. Saskiek zenbat irauten zuten (IGA-002/020)

Saskien iraupena, euren erabileraren arabera da. Dena dela, etxeko lanak egiteko erabiltzen zen saski batek urtebete baino gehiago irauten ohi zuen.

18. Auzoko bi fabrika (IGA-002/021)

Auzoan bi fabrika zeuden: plater fabrika (Goizuetatik ekartzen zuten materiala) eta okre fabrika.

19. Trena 1 (IGA-002/023)

1913an egin omen zen trena. Doneztebera eta Elizondora iritsi zen (Iruñeraino buelta emanen zuela aurreikusita zegoen, baina ez zen hala izan). Bagoiak zituen; bizikleta ere igotzen zuten trenean. Makiekin gertatutakoa kontatzen du.

20. Makiak (IGA-002/024)

Makiak nortzuk ziren.

21. Trena 2 eta autobusak (IGA-002/025)

Bi tren klase ziren: gasolioa erabiltzen zutenak eta ikatza erabiltzen zutenak. Gero, berehala, hasi ziren autobusak.

22. Igandeak Berrizaunen. Dantza (IGA-002/026)

Berrizaun auzoan igandetan zer egiten zuten azaltzen du. Bentako atarian, karreteran, egiten zuten dantza. Akordeoi jotzaileen izenak aipatzen ditu. Lekarozko maiordomoarekin gertatutakoa azaltzen du.

23. Ortzegun Gizena (IGA-002/027)

Inauteetan, Ortzegun Gizenean, etxez etxe eskean ibiltzen ziren haur gazteak kantari. Besteak beste, xingarra, txistorra eta arrautzak ematen zizkieten.

24. Urtezaharra (IGA-002/028)

Urtezaharrean kantatzen zituzten bertsoak esaten ditu.

25. Bere etxean espartinak aldatu (IGA-002/029)

Irungo feriara joaten zen jendea oinutsik etortzen ziren eta bere etxean paratzen zituzten espartinak. Berea amak, gainera, uzten zituzten espartinak garbitu eta idortzen zituen.

26. Oinetakoak (IGA-002/031)

Lehen, zaharrek kalotxak (larruz eta egurrez egindakoak eta iltze batzuekin, ez irristatzeko) erabiltzen zituzten. Donezteben txoklero bat zen; handik ekartzen zituzten askotan eskalapoia. Pneumatiko zaharrekin egindako abarkak ere ezagutu ditu.

27. Sorginen istorioak 1 (IGA-002/033)

Lehengo zaharrek esaten zutenenez, sorginak Igantziko erreka baten ondoan ateratzen ziren. Mozkor baten inguruko anekdota kontatzen du. Sorginen inguruko zenbait istorio kontatzen ditu.

28. Sorginen istorioak 2 (IGA-002/034)

Etxe bateko alaba eraman zuteneko istorioa kontatzen du. Argatan, Ortzirai Santu gauean gertatu zena kontatzen du: “zubia zuentzat eta erreka neska ederra guretzat”. Eskuko behatzekin gurutzea egiten zuten, babes gisa.

29. Lami-zuloa (IGA-002/036)

Zerbait arraro somatuz gero, zer erraten zuten: “Onazkoa baldin bazara, mintza zaitez eta txarrazkoa baldin bazara, honda zaitez”. San Juan gainean dago lami-zuloa; ermitako olioia ebasten omen zuten lamiek.

30. Agoteak (IGA-002/037)

Arizkunene, Bozate auzoan agotak ziren. “Pertsona txarrak” zirela uste du

31. Laxoa (IGA-002/039)

Lehen laxoan non aritzen ziren azaltzen du.

32. Oinutsik (IGA-003/002)

Bere ama baserrian bizi zen eta oinutsik joaten ziren herriraino; han espartinak paratzen zituzten. Neguan, hankak berotzeko, pisa egiten zuten.

33. Zentrala. Ura eta argia (IGA-003/003)

Sei urte zituela, aitak, osabak eta Argatako sozio batek paratu zuten zentrala. Lehenengo ura paratu zuten, gero kanalona eta azkenik deposito handia. Zentralarekin ura eta argia zuten. Gela guztietan paratu zituzten bonbillak.

34. Ura paratu aurretik (IGA-003/004)

Ura paratu aurretik, putzu batean biltzen zuten euria; edateko ura, berriz, iturritik ekartzen zuten.

35. Arropa garbitu. Bokata (IGA-003/005)

Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du (ura etxean paratu geroztik). Bazuten etxearen kontra egindako putzu bat eta harria. Bokata ere egiten zuten. Hankak zituen egurrezko kupel batean sartzen zuten arropa xaboituta eta gero suko hautsa paratzen zioten gainetikan; ur beroa, irakiten, botatzen zioten gainetik eta beheko zulo txiki batetik ateratzen zen ura: lixiba erraten zioten. Arropa zuri-zuria ateratzen zen. Xaboia etxean egiten zuten zerri-gantzarekin. Bokata egin ondoren, arropa atariko putzuan aklaratzen zuten. Arroparen bat orbana bazuen, xaboia eman ondoren belar gainean uzten zuten eguzkitan eta arratsian (“serenoan”) eta horrela zuritzen zen, kolore ona jartzen zitzaion. Kolorezko arropa lixibaren uretan beratzen uzten zuten eta gero harriaren gainean marruskatzen zuten.

36. Arropa saltzaileak. Arropa aprobetxatu (IGA-003/006)

Arropa saltzaileak baserritara etortzen ziren arropa saltzera; “mostrero” erraten zieten. Besteak beste, gizonezko lanerako galtzak, atorrak eta buzoak erosten zizkieten. Etxean josten zuten; arropa anitz aprobetxatzen zen.

37. Zer jaten zuten (IGA-003/008)

Haurra zela, ez zen diferentziarik astegun eta jaiegunetako janarien artean. Beti berdin jaten zuten: ilarra eta patata (etxekoa), garbantzuak tarteka (erosten zirenean), aza eta abar.

38. Irisarri. Etxaldekoen eta maizterren arteko diferentziak (IGA-003/010)

Irisarrin hiruzpalau etxe zeuden. Nagusi bat zen eta besteak maizterrak ziren. Etxaldekoen eta maizterren arteko diferentziak azaltzen ditu: errenta ordain. tzeaz gain, maizterrak hainbat lan egin behar zizkion nagusiari, besteak beste, bere etxerako bidea

39. Herrien fama eta harremanak (IGA-003/011)

Igantzi "Madrid chiquito" erraten diote, txikia eta polita delako. Beste herriekin harreman ona zuten, ez zen pikerik. Arantzakoak harrikalariak zirela erraten zen. Lesakarren eta Beratarren artean "pelusa" (inbidia) zela erraten zen.

40. Etxean morroia izan zuten (IGA-003/012)

Etxean morroia izan zuten. Auzoko mutil bat etortzen zen eta etxean jaten zuen; berak ez dakit zenbat ordaintzen zioten (ezta ordaintzen bazioten ere). Arantzatar bat ere izan zuten gero eta etxean egiten zuen lo; etxeko beste bat bezala zen.

41. Jaiotza. Umearen arropa (IGA-003/014)

Bortz ume izan zituen, denak etxeko ohean (medikuak eta amak lagunduta). Umea janzteko arropak prestatzen zituen lehenago : harizko maindire zaharrekin egindako atorra, faxarekin lotutako troxa, jertse bat eta felpazko gona handi bat.

42. Haurrari ebanjelioa paratu (IGA-003/015)

Bera haur zela, ebanjelioa paratu zion apezak arratsean ez zuelako lorik ongi egiten.

43. Troxak (IGA-003/017)

Haurren troxak behin eta berriz garbitu behar zituzten. Oinetakoak ere pisarekin hondatzen ziren.

44. Esnerik eman ezin zuten amak (IGA-003/018)

Izaten ziren emakumeak ezin zutenak esnerik eman; batzuetan behi esnea ematen zieten haur jaio berriei, baina batzuek ez zuten ongi hartzen eta hiltzen ziren. Esne anitz zuten emakumeek laguntzen zieten, emakume horien haurrei ere titia ematen.

45. Haurrari solasa diferente (IGA-003/019)

Haurrari solasa diferente egiten zaio. Besteak beste, katu erran beharrean, pitxitxi erraten da.; txakurra beharrean, guau-guau eta kalera ateratzeko, apapa.

46. Haur-kantak (IGA-003/021)

Haur-kantak: "talo-talo txin..." eta "arre arre burriquito...".

47. Emakume eta gizonaren lan ezberdinak (IGA-003/023)

Haurrak emakumearen ardura ziren, bere senarrak ez zituen inoiz besoetan hartzen. Azienda moldatzea ere bere ardura zen.

48. Sorginak (IGA-003/025)

Entzundako istorio bat kontatzen du. Gaztain erreak jaten aritu omen ziren Argatan eta egarri zirenez, bat iturrira joan zen ura eske. Baina berandutu zen eta ez zen itzultzen eta bapatean tximiniatik subila bota eta zera entzun zen “tori subila eta Argatako neskatxa ederra guretzat”.

49. Sinesmenak 1 (IGA-003/026)

Zerbait arraro sumatzen zutenean, honako hau esaten zuten: “onezkoa baldin bazara, ager zaitez eta, txarrazkoa baldin bazara, zoaz demonioen etxera”

50. Sinesmenak 2 (IGA-003/028)

Erauntsi handia heldu zelarik, zer egiten zuten azaltzen du: erramua paratu, ur bedeinkatua, kandela bedeinkatua piztu, gurutzea paratu eta Santa Barbarari errezatu.

51. San Juan eguna eta bezpera (IGA-003/029)

San Juan egunean kandelak eta loreak bedeinkatzen zituzten. Bezperan, berriz, sua egiten zuten.

52. Eliza 1 (IGA-003/030)

Eliza barnetik nolakoa zen azaltzen du. Hilerrak izaten ziren. Aulki anitz izaten ziren (etxe bakoitzeko bat edo bi). Defuntuentzako kandelak pizten zituzten hilerrietan egunero, urte betez.

53. Eliza 2 (IGA-003/032)

Gizonak eta emakumeak banaturik izaten ziren elizan. Gizonak koruan edo aitzineko bankutan jartzen ziren; emakumeak, berriz, hilerrian. Haurrek eta neskatxek ere banku bereziak izaten zituzten. Alkateak eserleku berezia izaten zuen aitzineko bankuan.

54. Inauterietako arropak (IGA-003/034)

Inauterietako arropak nolakoak ziren azaltzen du: kolorezko oihalez egidako soinekoa eta kapela.

55. Emakumeak inauterietan eta bestetan (IGA-003/035)

Neskatxak ez ziren mozorrotzen eta ez ziren ostatura joaten. Auzokoak Argatara jaisten ziren eta bingoan aritzen ziren. Frontoira ere joaten ziren pirlatan eta pilotan aritzeko. Euria ari bazuen, Argatan barrenean ematen zieten tokia.

56. Bataioa eta elizan sartzea (IGA-003/037)

Haurra jaio eta hiru egun baino lehen bataiatzen zen. Ama ezin zen etxetik atera elizan sartu arte, hamar egun ondoren gutxi gorabehera. Apezari kandela bat eramaten zioten behinik behin.

57. Seme-alaben izenak (IGA-003/038)

Bere seme-alaben izenak nork erabaki zituen azaltzen du. Aiton-amonek indar handia zuten izenak erabakitze orduan.

58. Bataioa 2 (IGA-003/039)

Bere sema-alaben bataioak nolakoak izan ziren azaltzen du. Bere amak eramaten zuen haurra. Gero bazkaria egin zuten etxean.

59. “Atso-bisitak” (IGA-003/041)

Haurra izan ondoren, emakumeak ama ikustera joaten ziren: “atso-bisitak”. Zalaparta handia izaten zen, ama oraindik bizkortu gabe zela. Merienda ematen zieten guztiei. Normalean igandean joaten ziren eta zer edo zer eramaten zuten: kafea, azukrea, dirua, galletak, eta abar. Lehenago oilo bat eramaten zuten.

60. Besten aurreko lanak (IGA-003/043)

Besten aurretik, etxea moldatzen zuten; zuritu eta garbitzen zuten. Maindire guztiak garbitzen zituzten; kolore horixka kentzeko, garbitu ondoren, “berdean” paratzen zituzten. Koltxoiak ere harrotzen zituzten. Paretak kisuarekin zuritzen zituzten; geroago hasi ziren pintura erabiltzen.

61. Ohatzeak (IGA-003/044)

Lehenagoko ohatzeak nolakoak ziren azaltzen du. Azpian arto-zurikinarekin egindako lastaira jartzen zen eta, gainean, ilezko koltxoia. Ohatzearen gainean artilez egindako koltxilak paratzen ziren.

62. Errotak (IGA-003/045)

Igantzín bi errota zeuden, arto-irina egiteko.

63. Lan anitz bizkarka egiten zen (IGA-003/047)

Lehen, baserrietan lan anitz bizkarka egiten zen. Esate baterako, lurra landu: beheko izkinean egiten zuten zanga bat, aitzurrarekin ateratzen zuten lurra eta sare batean kargatze zuten; 30 bat gizon errenkadan bata besteari pasatzen zioten sarea goiko izkinean botatzeko lurra. Gorotzarekin berdín egiten zen; bizkarrean saskietan eramaten zuten errenkadan batzuek eta beste batzuek zabaltzen zuten.

64. Ama ezkongabeak (IGA-003/048)

Ama ezkongabeek oso gaizki pasatzen zuten. Emakume bat neskato joan zen eta bere ahizpari eman zion haurra hazteko

65. Apezak (IGA-003/050)

Lehenago apezak gogorrangoak ziren. Mezara joaten ez zirenei heretikoak zirela esaten zieten. Mezara joateko galtzerdiak eraman behar zituzten, baita mantelina eta mauka luzea ere. Apeza ondolik pasatzerakoan “ave María purísima” esan behar zuten. Komunioa hartzeko belauniko jartzen ziren. Haurrek apezari eskuan musu ematen zioten. Apezek dotrina erakusten zuten eta batzuetan haurrei jotzen zieten.

66. Frantziara lanera. Neskato. Mojak (IGA-003/052)

Neska asko, bizitza ateratzeko, Frantziara lan egitera joaten ziren. Hemen ere izaten ziren neskato; oso gazte hasten ziren lanean, hamalau urterekin edo gazteago. Batzuetan mantenua besterik ez zuten jasotzen, dirurik ez. Madrilera ere joaten ziren neskato. Ama ezkongabe batzuk Ameriketara joan ziren, haurra hemen utzita. Lehenago neska gehiago moja joaten ziren.

67. Emakumeak fabriketan (IGA-003/053)

Igantzikotako eta Lesakakotako fabriketan lan egiten zuten emakume batzuk (gizon gutxiago omen zegoen).

68. Gizonen lanak (IGA-003/054)

Gizonak kontrabandoan eta mendian lan egiten zuten. Batzuk Frantziara joaten ziren mendira lanera. Beste batzuk Ameriketara artzain joan ziren. Igantzikotako gazte bat itsasora joan zen.

69. Gaizki-ulertua (IGA-003/055)

Gaizki-ulertua, anekdota bat kontatzen du.

70. Zer jaten zuten (IGA-004/001)

Bertzeak bertze, ilarra, bakailua eta patata, arrautza frijituak, garbantzuak, oiloak (igandeetan), etxeko sagarrak, flana edo arroz-esnea jaten zituzten. Arratsean, berriz, gaztain denboran, familia osoa biltzen zen sutondoan eta gaztainak erretzen zituzten, amak arrosarioa erreztatzen zuen bitartean. Gaztainen ondoren, esnea opilarekin jaten zuten.

71. Aita hil zitzaizen (IGA-004/002)

Ama alargun gelditu zen zazpi umerekin; ez zuen pagarik inondik jasotzen. Laborantza lanak egitera joaten zen eta bildutakoaren zati bat ematen zioten. Behi bat, zerri bat eta oilo batzuk bazituzten. Dirurik ez zuten ikusten. Anaia bat gerran hil zen.

72. Bestetako janaria (IGA-004/003)

Amak ardi zahar bat erosten zuen herriko bestetarako. Osaba Arantzatik etortzen zen bestetarako eta akordeoia jotzen zuen. Ardia, arroza eta postrea jaten zuten.

73. Txikitatik lan egin behar (IGA-004/005)

Gazte-gazte hasi ziren peoi joaten bertze baserrietara. Merienda edo afaria ematen zieten, baina bazkaltzera beti etxera etortzen ziren. Etxean ere txikitatik hasi ziren lanean, behiak jezten eta bazkatzen, iturritik ura ekartzen etab. Anaia zaharrenak Bentan zegoen "Okrrera" fabrika lan egiten zuen eta astean duro bat irabazten zuen (amari lau pezeta ematen zizkion)

74. Arropa moldatu (IGA-004/006)

Arropa zaharrak ematen zizkieten eta amak moldatzen zituen.

75. Goibelak ateratzen badira (IGA-004/007)

Karrikara ateratzen zirelarik edota amak mandaturen bat egitera bidaltzen zituenean, erraten zien agudo joateko etxera, goibelak ateratzen baziren, azken juizioa iritsiz gero elkarrekin egon behar zutela.

76. Burutea (IGA-004/008)

Egur bila joaten zirenean, zamak egin eta buruan ekartzen zituzten. Burutea paratzen zuten. Ura ere buruan eramaten zuten baldetan.

77. Arropa eta oinetakoak (IGA-004/009)

Bizitza gogorra zen: "gaizki jan eta gaizki jantzi". Elizara joateko soin bat eta espartin zuriak zituzten, baina euria ari bazuen, etxetik oinutsik joaten ziren eta elizara sartu aurretik paratzen zituzten espartinak. Bazen pastilla zuri bat eta pasta zuri bat espartinak zuritzeko.

78. Familia (IGA-004/010)

Beti elkarrekin eta kontent zeuden anaia-arrebak eta ama. Ama oso garrantzitsua zen beraientzat.

79. Egurra (IGA-004/011)

Egurra non pilatzen zuten azaltzen du.

80. Musara edo buruko zapia (IGA-004/012)

Amak musara (buruko zapia) paratzen zuen buruan; zuria izaten zen normalean, tanto beltzekin.

81. Orduko salneurriak (IGA-004/013)

Zerri batek 10 edo 20 pezeta balio zituen; ogi handi batek, berriz, 11 sos.

82. Errespetu handia amari (IGA-004/014)

Errespetu handia zioten amari. Zigortzen zituen.

83. Jolasak (IGA-004/016)

Igande arratsaldetan, inguruko neska eta mutilak baserri batean biltzen ziren. Zertan jolasten ziren kontatzen du: haritz handi baten adarrean katea paratzen zuten eta txandaka aritzen ziren (batek bultzatu eta bertzea eseri); kukumikordaka, "al corro la patata", ttabatan (tortolosean), etab. Tortolosean aritzen zirenean zer erraten zuten azaltzen du: "unetas, uniones, naranjas y limones; a dosetas, y las otras también; a tresetas y la cuarta también; y a cuatretas, las cuatro cogeré".

84. Arre-arre mandoko (IGA-004/018)

Haur kanta: "Arre-arre mandoko, bihar Iruñerako, etzi Tolosarako, handik zer ekarriko, kolkoa bete kukuso, horiek norendako? zureta, zureta".

85. Talo-talo txin (IGA-004/020)

Haur kanta: "Talo-talo txin, hator etxera Martin, ogi puska handi batekin..."

86. Haurra egizu lo (IGA-004/021)

Haur kanta: “Haurra egizu lo, lo , lo, emanen dizut bi goxo, orain bat eta bestea gero”.

87. Aldapeko sagarraren adarraren puntan (IGA-004/022)

Kanta: “Aldapeko sagarraren adarraren puntan, puntaren puntan, txoria zegoen kantari, txiruliruli, txiruliruli, nork dantzatuko ote du soinutxo hori, tixiruliruli, txirulirula, nork dantzatuko ote du soinutxo hura”.

88. Hortza erortzen zitzairenean (IGA-004/024)

Hortza erortzen zitzairenean, amak burko azpian uzteko erraten zien eta hurrengo egunean pezeta bat topatuko zutela

89. Errege eguna. Opariak (IGA-004/025)

Errege eguna iritsi aurretik, zelatan egoten ziren ea ama karrikara joaten zen erosketak egitera. Opariak bi soseko olata (erdian marra bat zuena) eta asto pastilla (txokolate pastilla) izaten ohi ziren; batzuetan karamelu bat, laranja bat edota galleta batzuk ere oparitzen zizkieten. Amak erregeak gauez mandoekin etorriko zirela erraten zien. Oinetakoak, garbi-garbiak, leihoan paratzen zituzten

90. Senda-senda mina (IGA-004/026)

“Senda-senda mina, anbutx urdina, non duk hire mina?”.

91. Miserikordia Etxea eta ospitalea (IGA-004/027)

Haurra zela, osasun txarra zuen eta Don Matias apezak Miserikordia Etxera eraman nahi zuen, baina bere amak ezetz erran zion. Haurra ezin zuela mantendu eta ospitalera eraman behar zutela erraten zion amari; amak, berriz, “ospitalea, alajainkoa, kanposantuaren aitzineko etxea” zela erantzuten zion.

92. Maistrak jaten ematen zion (IGA-004/028)

Eskolara joaten zenean, maistrak bere etxera eramaten zuen eta bazkaltzen ematen zion. Ilunabarretan ere ogitarteko ederra ematen zion etxean afaltzeko; amarekin partitzen zuen.

93. Goserik ez (IGA-004/029)

Baserri batera peoi joaten zenean, opil txiki bat eta sardin zahar bat ematen zizkieten merendatzeko; berak erdia gordetzen zuen eta amari eramaten zion. Dena dela, ez zuten goserik izan, esnea, opilak eta eltzaria beti izaten baitzituzten. Sobratzen ziren opilak zerratu eta esnean egosten zituzten. Bertzela, esnea eta arto irinarekin ahia egiten ohi zuten.

94. Zotz egiteko (IGA-004/031)

Zotz egiteko: “Txirristi mirristi reina pla olio zopa kikili salda urun plerun klik”

95. Sorginak 1 (IGA-004/033)

Igantzin sorginak baziren; atso zahar batzuk ziren. Madalen izenekoak amari aza eta ilarrak ekarri zizkion eta, jan ondoren, ama gaizkitu zen: “sorginak eman zizkidan” erraten zuen. Madalenek pikuak eskaintzen bazizkien, ez

hartzeko erraten zien amak eta behatzekin gurutzea egiteko. Zakurren edo katuen forman ateratzen omen zela erraten zuten; bere anaia lanera joaten zenean izutzen zen eta Madalen txakur forman ateratzen zitzaiola pentsatzen zuenez, jotzen saiatzen zen, baina ez zuen asmatzen. Madalen gauez aritzen zen arropa garbitzen eta mutil koadrila batek jo zuen. Madalenen eskaileretatik erori zela erraten zuen.

96. Sorginak 2 (IGA-004/035)

Apezak proba egin zuen Madalen sorgina zen jakiteko: elizara joatean liburua zabalik utziz gero, sorginek ezin zuten elizatik atera. Madalen liburua ixtean atera zen elizatik. Madalen hilzorian zela, apeza bere etxera joan eta “gaizto horiek nori pasatu behar zizkion” galdetu zionean, “etxeko oilarrari” erantzun zion. Baina apezak erran zion bera baino “fuerteago” zen bertze bati eman behar zizkiola eta migari (behi gazteari) emateko. Baietz erran zion eta oilarra, behi mia eta Madalen hil ziren. Sorginek hori egin behar omen dute ez sufritzeko hilzorian daudenean. Garbereko etxekoak ziren Madalen eta bere ahizpa.

97. Sorginak 3 (IGA-004/037)

Sorginak jotzeko haien itzala jo behar da. Sorginari joz gero eskapatzen ziren. Katu forman ateratzen ziren sorginek atakatzen zuten.

98. Sorginak 4 (IGA-004/039)

Zerbait arraro sumatzen zutenean zer erraten zuten: “ona bahaiz, hator, ager hadi, eta gaiztoa baldin bahaiz, alda hadi”. Leku batetik bertzera joateko, berriz, erraten zen: “goibel guztien azpitik eta lar guztien gainetik”.

99. Sorginak 5 (IGA-004/040)

Sorginek larretan arku batzuk egiten zituzten gauez, eta jende arrunta handik pasatzen bazen “pintxatuta” gelditzen zen. Amak ez pasatzeko erraten zien.

100. Sorginak 6 (IGA-004/041)

Bi lagun kontrabandoan ari zirela, deskantsatzeko gelditu ziren eta batek bele bat ikusten zuen bueltaka haien gainean. Belea beste gizonaren ahotik sartu omen zen, sorgina zelako.

101. Sorginak 7 (IGA-004/042)

Zugarramurdin sorginak biltzen zirela erraten zuten. Sorginek akelarreak eta beste gaiztakeriak arratseko hamabitan egiten omen zituzten.

102. Sorginak 8 (IGA-004/043)

Behatzekin gurutzea egiten zuten (lodia ondoko beste bien artean sartuta) Garberetik pasatzen ziren guztietan. Geroago etxe horretara lan egitera joan zen, baina beldurrez izaten zen eta behatzekin gurutzea eginda lan egiten zuen. Gizonei ez zieten sorginak erraten, beste izen bat zuten, baina ez da gogoratzen.

103. Sorginak 9 (IGA-004/044)

Oilarrak gauez kukurruku egiten bazuen, txarra zen (sorginak inguruan zirela-edo erran nahi zuen). Gatz pixka bat hartu eta sutara botatzen zuten orduan.

104. Sorginak 10 (IGA-004/046)

Elorri zuriarekin gurutzeak egin, bedeinkatu eta alorretan paratzen zituzten; usteltzen baziren, sorginak ez zirela etorriko erran nahi zuen. Ateetan gurutze zuriak paratzen zituzten, etxeak sorgin eta gaiztoetatik babesteko.

105. Sorginak 11 (IGA-004/048)

Sorginengandik nola babestu: otoitz eginda, erramu zuria bedeinkatuta eta San Juan egunean bedeinkatutako loreekin. Landak ere bedeinkatzen ziren.

106. Sorginak 12 (IGA-004/050)

Argatan neska ederra omen zen eta suilarekin errekarara ur eske joaten zen. Egun batean, tximinitik suila erori zen eta zera entzun zuten: “zuentzat Argatako suila eta Argatako neska ederra guretzat”; eta ez zen gehiago agertu.

107. Lamiak 1 (IGA-004/051)

Lami zuloan neska ederrak (beltzaran eta horaila) ateratzen zirela erraten zen. Urrezko orrazi batekin ilea orrazten aritzen omen ziren. Sorgina eta lamia ez dira gauza bera, lamiak ez dute gaizkirik egiten, baina sorginek bai.

108. Lamiak 2 (IGA-004/052)

Lamiak jendea bezala omen ziren. Jendea ikusten zutenean, gordetzen ziren.

109. Lamiak 3 (IGA-004/054)

Lamiak urrezko gauza hagitz politak egiten zituztela erraten zen. Dena urrezkoa zuten.

110. Lamiak 4 (IGA-004/056)

Jendea sumatuta, lamiak izkutatu ziren, baina batek orrazia ahaztuta utzi zuen.

111. Lamiak 5 (IGA-004/058)

Lamia bat haurdun zela-eta, emaginaren bila joan ziren. Emaginari urrezko kinke bat eman zioten ordainetan eta gibelara ez begiratzeko, beti aitzinera begiratzeko erran zioten, besteal kinkea kenduko ziotela; emagina, izututa, gibelera begiratu zuen eta lamiak kinkearen erdia kendu zioten. Beti ikaratuta izaten ziren eta bide luzeagoetatik joaten ziren lamiak eta sorginak zeuden tokietatik ez pasatzeko.

112. Lamiak 6 (IGA-004/060)

Artzain bati lamia agertu zitzaion eta lagunak egin ziren. Artzainak bildots bat eman zion jateko, ardiak pisu handiegia zuelako. Artzainaren makilak botereak zituela uste du.

113. Lamiak 7 (IGA-004/062)

Haur bat sehaskatik lapurtu omen zuten sorginek eta bere ordeaz panpin bat utzi zuten. Maindireak odolez zikindurik gelditu ziren eta sorginek zera erran omen zuten: “haur honen odola zuentzat eta haurra guretzat”.

114. Auzoari paratutako bertsoak (IGA-005/002)

Auzoari paratutako bertsoak: "Argiñorgatik gora dago Iñarburu, bertso berri batzuek para behar ttugu..."

115. Zezenen bertsoak. Emazteari bertsoak (IGA-005/004)

Aitatxik bertsoak paratzen zituen. Lesakako zezenen bertsoak. Emaztearei paratutako bertsoak.

116. Extremadurako bertsoak (IGA-005/006)

Aitatxik Extremaduran gertatutako istorio bat kontatzen du bertsotan: "Deklaratzera noa kasu bat, penagarritzko kasua, Espainiako herri batean, Extremaduran pasia..."

117. Pregoi eguna. Tobera jo (IGA-005/008)

Pregoi egunean, apezak pulpitotik ezkontzaren berri ematen zuen (ezkongaien izenak, eguna, ordua etab.) eta oztoporik bazen galdetzen zuen. Auzoko neskek burnizko bi palanka apaintzen zituzten (kolorezko paperekin eta begiztekin). Arratsean, mutilak akordeoilariarekin toberak jotzera joaten ziren etxe atarira. "San Martin de la monja, monja de San Martin, tobera jo dezagun Birjina Amarekin..." kantatzen zuten eta, ondoren, burniekin zarata egiten zuten. Etxe barrenera hiruzpalau aldiz sartzen ziren eta kafea eta kopak hartzen zituzten. Dantzan ere aritzen ziren.

118. Urteberritan eskean aritzen ziren kantari (IGA-005/009)

Urteberritan eskean ibiltzen ziren kantari: "Dios te salve, ongi etorri, gabon Jainkoak digula, legearekin kunpli dezagun urte berriaren sarrera". Gero, hainbat bertso kantatzen zituzten: "Horra hor goian izarra, errealdian lizarra, etxe hontako nagusi jaunak urre gorritzko bizarra". Etxean inor ez bazen: "Goazen, goazen hemendik, hemen ez zegok dirurik...". Bertze bertso bat: "Eman behar baduzu, emazu, bestela ezetz esazu, hotzak hiltzera ate ondora amak ez gaitu bidaldu". Bertze bat: "Esperantza non zara, ez zara inon ageri, mundu guztia ezkondu da ta zu zertako egin ez zara". Bertzeak bertze, arrautzak eta dirua ematen zizkieten etxeetan.

119. Inauteak (IGA-005/010)

Inautetan biltzen zutena fondan prestatu eta arratsaldean plazan zeudenei ateratzen zieten. Bertzeak bertze, tortillak, ardoa, galletak eta ardo gozoa.

120. Behobia eta Donibane Lohitzunera lanera (IGA-005/011)

Bere lagun batzuek erosi zuten Igantziko lehenengo kotxea: TSR8 bat. Bere gizona Frantzian aritzen zen eta bera, berriz, Behobiako fonda batean. Haurrak amarekin uzten zituen lanera joateko. Mobiletean joaten ziren; gero motorra erosi zuten. Senarrak Behobian uzten zuen eta bera Donibane Lohitzunera jarraitzen zuen. Guardia zibil askori ematen zien gosaria fonda hartan.

121. Ezkontza (IGA-005/013)

Berak soin beltza egin zuen, orduan ez baitzen zuririk eramaten. Gainean beroki granatea eta mantelin beltza buruan. Santanderretik soldadu (arrantxero lana egiten zuen) etorritako batekin ezkondu zen. Herriko fondan

egin zuten ezkontza eta osabak akordeoia jo zuen. Eztei-bidaia Bilbora eta Santander aldera egin zuten; hamabortz egun pasatu zituzten. Hiru seme-alaba izan dituzte.

122. Arreoa (IGA-005/014)

Baserri handiko neskek, arreoa eramaten zuten: maindireak, toallak, mahai-zapiak etab.

123. Erremedioak 1 (IGA-005/016)

Katarroarentzat, berbena-belarrarekin enplastuak egiten zituzten. Esate baterako, sinusitisarentzat, berbena-belar eta baso-belar xehatuta, olio eta baratxuriarekin tortilla egiten zuten (arrautzaren zuringoarekin bakarrik) eta oihal batean sartzen zuten. Kopetan edo bularrean paratzen zuten. Ogi papurrak, esnea eta ardoarekin ere bertze enplastu bat egiten zuten. Katarroarendako eta pikor edo koskorrak ontzeko ere balio zuen. Tipula zanpatuta olio pixka batekin berotu eta pikorra edo koskorra zegoen tokian paratzen zuten; honek ere ontzen zituen. Erredurendako ukendua: zartagin batean olioan paratu eta bertan erretxina, erleen argizaria eta xaboia urtu; bendak edo gasak bertan igurtzi eta uretan pasatzen dira, gero kutxa batean gorde ahal izateko. Basmo-belarra ere botatzen dio ukendu horri eta bote batean gordetzen du; zaurientzat oso ona omen da. Berbena ere botatzen ahal zaio.

124. Erremedioak 2 (IGA-005/018)

Kakeria mozteko, botil batean ura, limoi zukua, gatza eta azukrea nahastu eta hartatik edan (medikuak errana). Dena dela, bere lengusinak belar luze bat erabiltzen du.

125. Erremedioak 3 (IGA-005/019)

Hainbat belar klase aipatzen ditu; nolakoak diren eta nola hartu: pixa-belarra (giltzurriak garbitzeko hagitz ona, egosita kamamila bezala hartzen da), berbena (barrena garbitzeko, egosita hartu), almorranak (odoluzkiak) kentzeko belarra,

126. Erremedioak 4 (IGA-005/021)

Suspel-belarrak suspelak (ospelak) kentzen ditu (gainean paratuta). Belarriko minarendako bada bertze belar mota bat (zanpatu eta haren ura belarrian bota). Azeri-buztana hezurretako eta hanketako minarendako erabiltzen da (egosi eta ur horretan hankak sartu). Kamamila tripako mina eta begitxindorra kentzeko erabiltzen da. Begitxindorrentzat basmo-belarra ere ona da.

Txindorrak eta mingaineko legarrak kentzeko, batzuek giltza bat pasatzen dute; berak koilara baten giderrarekin igurzten du mingaina (burnizkoa izan behar du). Lehen, laratza erabiltzen zuten.

127. Erremedioak 5 (IGA-005/023)

Tripako mina kamamila hartuta pasatzen ez bada, ura irakiten paratu, esku bat gatz bota, trapu edo toalla bat han busti eta tripan paratu.

128. Erremedioak 6 (IGA-005/025)

Kalixendako (garatxo) bada belar berezi bat, moztekoan zorne hori bat a teratzen duena. Tropesia zutenean (tripa haizatzen zitzaienean) Lesakara joaten ziren: han bedeinkatu eta bederatzi egunez hartzen zuten ur eta

galleta bedeinkatuak, behatz batean soka bat paratzen zuten hiru korapilorekin eta, bederatzi egunak pasatu ondoren, sutan erretzen zuten. San Estropio santua da.

129. Erremedioak 7 (IGA-005/026)

Hernien gainetik olio pasatzen zuten.

130. Suge batek ausiki egin zion (IGA-005/028)

Hilzorian izan zen suge batek eskuan ausiki egin zionean. Aurrenekoz, gerrikoarekin besoa estutu eta Lesakako medikuarengana eraman zuten; hark ireki eta beltza atera zion, baina ez zuen pozoia kontrako botikarik eta ospitalera bidali zuen.

131. Erremedioak 8 (IGA-005/029)

Gangarabilak (ahoa puslax betetzen zen eta eztarria potokoz) zeinatzin ziren gatzarekin: “gangabillak dire bedetzi, bedetzi zortzi, zortzi zazpi, zazpi sei, sei bost bost lau, lau hiru, hiru bi, bi bat, nire gangaillak laster sun zirt zart”. Hiru bider egiten zen eta gatza hirutan botatzen zen

132. Piedadeko ermita (IGA-005/031)

Piedadeko ermita lehen handiagoa zen. Han bizi ziren eta ezkilak jotzen zituzten (goiz, eguerdi eta arratsean). Kanposantua handitzeko, ondoko etxea saldu eta harriak eraman zituzten.

133. Arantzako serora eta ekaitza (IGA-005/032)

Lehen, denbora itsusia heldu zelarik, ezkilak jotzen zituzten. Arantzan, apezja joana zen eta serorak “guarda pan, guarda vino, guarda cebolla, harri guztiak cebolla, ekaitza ekaitza cebolla”.

134. Sinesmenak 1. Sua, ogia eta nabala (IGA-005/034)

Hurrei, sua zirikatzen ibiltzen zirenean, ohatzean pixa eginen zutela erraten zieten. Eskaileren bueltan kandela bat paratzen zuten gurasoek, hurrek ohean pixarik ez egiteko. Ogia hasi aurretik, gurutzea egin eta musu ematen zioten. Nabala zutik gelditzen bada, zorte txarra ekartzen du. Ogia ezin zen buruz beheiti izan, beti buelta ematen zioten bizkarraz goiti paratzeko. Ogia lurrera erortzen bazen, musu ematen zioten.

135. Sinesmenak 2. Haurdunaldia (IGA-005/036)

Emakumearen aurpegia ikusita jakin daiteke haurdun dagoen. Haurra mutila edo neska izanen den jakiteko, sabelaren formari begiratzen zaio.

136. Sinesmenak 3. Txukuna kentzeko (IGA-005/037)

Txukuna (zotina) kentzeko, lepoari (arroparena) bueltak eman, izutu edota ur pixka bat edan behar da.

137. Sinesmenak 4. Gatz anitz (IGA-005/039)

Emakume batek gatz anitz botatzen badio janariari, ezkontzeko gogoa duela erran nahi du.

138. Sinesmenak 5. Zakurren ulua (IGA-005/041)

Zakurrak gauez ulu egitean, familian zerbait txarra gertatuko zela uste zuten.

139. Sinesmenak 6. Eguraldia iragarri (IGA-005/043)

Eguraldia nola iragartzen zuten. Arrats gorri, eguraldia eta goiz gorri, arrats zuri. Izar anitz baldin badira, eguraldi ona. Ardiak menditik jaisten baldin badira, denbora txarra heldu da. Armia armak eguraldi txarrarekin ateratzen dira, eguraldi aldaketetan. Zizare handiak ekaitzekin ateratzen dira.

140. Itsasora lanera. Marinela (IGA-006/001)

Bere aitatzik eta bere bazkideak itsasontziak zituzten. Etxean hainbeste mutil zirela eta, bere amak Euxtakioarentzat lana bilatzeko eskatu zion. Pasaiara joan zen eta hasieran portuan hasi zen deskarga lanetan. 1955ean paperak egin zizkioten eta itsasora joan zen aurrenekoz, Gran Sol aldera. Gero Terranovara joan zen (14 eguneko bidea). Batzuetan bi hilabete izaten zen etxean itsasora joan gabe eta, denbora horretan, ez zuen segururik, bakarrik lanean ari zenean. Zazpi urtez izan zen marinela.

141. Nautika eskola (IGA-006/002)

Zazpi urtez marinela izan ondoren, nautika eskolara joan zen patroizateko; eskolan hamar hilabete pasatu zituen. Itsasoan orientatzen ikasi zuen, besteak beste, iparrorratza eta sestantea erabiltzen. Sestantea nola erabiltzen den azaltzen du. Eskolatik aterata, hamar urte izan zen patroiz, batzuetan kostan eta besteetan arrantzan.

142. Patroi. Nola egiten zuten arrantza (IGA-006/003)

Patroi izan zenean, arrantza nola egiten zuten azaltzen du. Sarea bi itsasontziren artean arrastatzen zuten; bere itsasontzia, bigarrena zenez, beste ontziko patroiak agintzen zuena bete behar zuen. Harrapatutako bakailao txikiak uretara botatzen zituzten berriz. Besteak kutxetara botatzen zituzten; hiruzpalau lagun buruak kentzen ibiltzen ziren eta beste bi, mahai baten gainean, ireki eta hezurra kentzen zieten; beste marinela batzuek bakailaoak garbitzen zituzten eta sotora bota; han bi lagun izaten ziren antolatzeke. Sotoa betetzen zenean, etxera edo portura itzultzen ziren.

143. Itsasoan, lurra ukitu gabe (IGA-006/004)

Itsasoan, lurra ukitu gabe, gehienez bi hilabete egoten ziren; elikagaiak, ura, gasoila eta gatzak agortu aurretik idorrera itzuli behar ziren.

144. Bakailaoa bakarrik (IGA-006/005)

Bakailaoa arrantzatzen zuten bakarrik, beste arrainak uretara botatzen zituzten (bakailao txikiak ere).

145. 30 tona ur (IGA-006/006)

30 tona ura izaten zuten; hondar aldera mugatzen zen. Portura joaten zen amaitzean zenean.

146. Hogei lagun itsasontzi bakoitzean (IGA-006/007)

Itsasontzi bakoitzean 20 edo 22 lagun izaten ziren. Bat bakailaoa irekitzen, beste bat hezurra kentzen, beste hiru burua kentzen, bat edo bi garbitzen

(eskuila latzekin), sotoan beste bi lagun (arrainak gazitzen). 48 ordu izan ziren behin lanean, kamainan sartu gabe. Gela bakoitzean sei edo zortzi lagun izaten ziren; motoristak, berriz, berea izaten zuen, baita patroiak ere. 16 ordu lan egiten ohi zuten; goizeko hiru t'erdietan jaikitzen ziren.

147. Hotz handia (IGA-006/009)

Hotz handia egiten zuen. Eskularruekin ibiltzen ziren, baina berehala bustitzen ziren. Icebergen artean izan ziren batzuetan eta itsasoa hormatuta ikusi zuten prismatikoekin. Sareak uretatik atera bezain pronto hormatzen ziren. Zira kendu eta jertsea hormatuta izaten zuten.

148. Arropa 1 (IGA-006/011)

Galtzontzilo luzeak eramaten zituzten, kamiseta lodiak eta gainean bi jertse eta traje-zira. Traje-zirari linazi-olioa ematen zioten, gogortzen zen eta ez zuen ura pasatzen uzten. Gero gomazko beltzak erosten hasi ziren Kanadan. Kapela ere eramaten zuten (bizkar gainera iristen zena).

149. Sareak josi. Jatekoa (IGA-006/012)

Sareak jostea marinelen lana izaten zen. Sukaldariak eta bere laguntzaileak prestatzen zuten egunero jatekoa; egunero ogi berria izaten zen. Denetarik jaten zuten, besteak beste, eltzaria (garbantzuak, ilarrak edo dilistak), arroza, oilaskoa, zerri-hankak, saiheskiak, arrautzak, tomatea eta pipermorroak. Arraina ere jaten zuten, noski. Hasieran litro eta erdi ardo ematen zieten, gero litro bat eta, azkenik, kendu zuten.

150. Arropa 2 (IGA-006/013)

Hasieran, nagusiak zira eta bota-pare bat ematen zien marinelei, gero hori kendu zuten. Norberak berea erosi behar zuen. Askotan arropa josi behar zuten. Hamabostean behin garbitzen ohi zuten arropa; batzuek soka batekin itsasoan sartzen zuten, baina gatzarekin ez zen ongi garbitzen; berak ur beroa paratzen zuen balde batean, arropa beratzen uzten zuen, xaboia eman eta eskuekin igurtzi egiten zuen (baita eskuila batekin) kubieta gainean.

151. Gorputza garbitu (IGA-006/014)

Itsasontzian ez zen dutxarik, balde bat edo bi hartu eta hantxe, ahal zuten moduan. Ilea gutxitan garbitzen zuten.

152. Bizikidetza. Atsedenaaldiak (IGA-006/015)

Hainbeste denbora itsasontzitik atera gabe egoten zirela-eta, bizikidetza nolakoa zen azaltzen du. Denbora txarra egiten zuenean, jantokian kartetan aritzen ziren; dena dela, beti bazegoan zerbait egiteko. Portura iristen zirenean, lehenengo sareak moldatzen zituzten eta, lana amaitzen zutenean, egun librea izaten zuten. Ortzegun eta ortziral santuan ez zuten lanik egiten. Ortziraletan bijilia izaten zen.

153. Lurrera joaten zirelarik. Anekdotak (IGA-006/016)

Lurrera joaten zirelarik, lanak amaitu ondoren, kafea hartzera-edo joaten ziren. Hamar urtetan behin joan zen kanpora bazkaltzera. Dantzalekura joaten ziren, ontzian afaldu ostean. Erosketak egitera joan zireneko anekdotak bat kontatzen du. Beraz ez zen mozkortzen, baina bertzeak anitz mozkortzen ziren.

154. Anekdotak. Kobrearen ebatsia (IGA-006/017)

Terranovan, espainol batzuek mendian zegoen kobre-linea ebatsi zuten.

155. Soldataren finkorik ez (IGA-006/019)

Urte batean, langilerik ezin hartu eta soldataren finkoa eskaini zuten, baina ez zuten behar bezain beste lanik egiten marinelak.

156. Diru anitz irabazten zuten (IGA-006/020)

Oihanean baino diru gehiago irabazten zen itsasoan. 1080 pezeta, 19 pezeta toneladako eta bost edo hamar bakailao ordaintzen zizkieten hilabetero. Horretaz gain, kokotxak eta buruak hartzen ahal zituzten eruek saltzeko. Gero gehiago ordaintzen hasi ziren: 5 duro tonako. Patroiak, berriz, ehuneko 3a jasotzen zuen.

157. Telefonoz hitz egiten zuten familiarekin (IGA-006/021)

Itsasontzian zeudela, telefonoz hitz egiten zuten familiarekin

158. Bakailao-fabrika (IGA-006/022)

Bakailao-fabrika 1970ean egin zuten, txarkuteria bat izan zen tokian.

159. Itsasontzia erre zenekoa (IGA-006/024)

Itsasontzia erre zitzaizeneko istorioa kontatzen du

160. Itsasontzia hormatuta (IGA-006/025)

Eguraldi txarra zen eta ontzian sartzen zen ura berehala hormatzen zen; aizkoraz eta ura botata saiatzen ziren itsasontziko horma kentzen. Zero azpiko tenperaturak zirela lan egiten zuten beti neguan.

161. Haurtzaroa eta gaztaroa. Bihurrikeriak (IGA-006/027)

Hamalau urte izan arte joan zen frontoiaren ondoan zegoen eskolara. Gero, gauaz joaten ziren, baina bihurrikeriak egiten zituzten. Behin asto bat terraza batera igo zuten eta harekin dantzan aritu ziren. Beste batean, zumiekin karrotxo bat lotu zioten astoari eta herritik bueltak ematen aritu ziren.

162. Onddoak (IGA-006/029)

Onddoak hartzeko ilargi betea ona dela errate da. Haritzen eta gaztainen azpian izaten dira, besteak beste. Ilargiak anitz eragiten omen du. Onddo zuria eta beltza hartzen dituzte. Goringoa eta ziza horia ere izaten dira; gibel-urdina eta txanpiñoia ere ateratzen dira belagietan. Onddo bat ikusiz gero, gehiago ez dela handitzen erraten dute.

163. Errogatibak 1 (IGA-006/030)

Errogatibak (erreguteak) zer ziren azaltzen du. Ekaina aldera egiten ziren. Letaniak kantatzen zituzten.

164. Apezen bedeinkapenak (IGA-006/031)

Apeza baserritara joaten zen bedeinkapena ematera.

165. Sorginak eta lamiak (IGA-006/033)

Argatan sorginak zirela erraten zuten. Lamien zuloa non zegoen azaltzen du.

166. Maiatzeko arbolak (IGA-007/001)

Maiatzeko lehenbiziko igandean, gauez, 2 txopo (makal) ekartzen zituzten menditik eta belarrekin adornatzen zituzten.

167. Apezak gogorrak ziren (IGA-007/002)

Lehengo apezak gogorrak ziren. Don Matias apezak dotrina irakasten zien eta, batzuetan, kaskoan jotzen zien eta kastigatu (belauniko paratu eta eskuetan liburuak eutsi behar zituzten).

168. Bazkoz kunplitzea 1 (IGA-007/004)

Bazkoz kunplitzeko txartel batzuk partitzen ziren eta txartelak lortzeko apezak azterketa egiten zien gazteei.

169. Bijilia eta bulak (IGA-007/005)

Bijilia zer zen azaltzen dute: Garizuman ortziraletan ezin zen haragirik ez zerrikirik jan (arraina edota arrautzak jaten zituzten). Bula, bijilia ez egiteko baimena zen.

170. Maizterrak eta etxaldekoak (IGA-007/007)

Maizter eta etxaldekoen artean diferentziak izaten ziren. Maizterrak burua makurtzen zuten. Maizterrak ez ziren alkate izaten. Maizterrak eta etxaldekoak ez ziren elkarrekin ezkontzen. Mando-tratuak izaten ziren

171. Errogatibak 2 (IGA-007/008)

Errogatibak (erreguteak) elizatik ateratzen ziren eta herriari buelta ematen zitzaion; errosarioa eta letaniak erreztatzen ziren. Idorra baldin bazen, euria eskatzeko egiten ziren.

172. Prozesioak (IGA-007/009)

Bestaberriko prozesioa oso garrantzitsua zen lehen. Urriko aurreneko igandean ere Ama Birjinari egiten zitzaion prozesioa. Prozesioetan imajina lau gizonen artean eramaten zuten eta Mariaren Alabek estandarte ateratzen zuten. Alkatea beti joaten zen aginte-makilarekin. Bestaberri egunean herria apaintzen zuten, lurrean iratze eta loreak paratzen zituzten bi aldetan eta erdian ehun zuri bat, apeza handik joateko

173. Elizkoak eman (IGA-007/011)

Etxeren batera elizkoak ematera joan behar zutenean, apezaren ondoan monagiloak (eliz-mutilak) txilina joka joaten zen; bidetik topatzen zuten jendea belaunikatzen zen. Gaixoaren etxekoek kandlekin ateratzen ziren apeza hartzera. Hiltzear zegoen gaixoari, oliaduretan bustituriko uata batekin gurutzeak egiten zizkion apezak gorputzaren hainbat tokitan.

174. Defuntu-bideak (IGA-007/012)

Hildakoak baserrietatik jaisteko defuntu-bideak zeuden.

175. Zirristi mirristi (IGA-007/014)

Bere aitak "zirristi mirristi gerrena plat oilo zopa, kikiri salda..." irakatsi zion.

176. Aita lasterkaria (IGA-007/016)

Bere aita Igantzitik Iruñera joan zen lasterka. Kilometro bat hiru minututan egiten zuen bere aitak. Lana non egiten zuen azaltzen du.

177. Herrien fama (IGA-007/017)

Herrien fama: aranztarrak, karrikalariak; igantziarrak, jakintsuak eta leskarak, tripazaiak.

178. "Madrid chiquito" (IGA-007/019)

Igantzi "Madrid chiquito" erraten zitzaion.

179. Bere gurasoek ez zekiten erdaraz (IGA-007/021)

Euxtakioren gurasoek ez zekiten erdaraz.

180. Biografia laburra (IGA-008/001)

Sei urtetan hasi zen eskolan. Maistra bera izan zuen urte guztietan. Eskola amaitu zuenenean (14 urtetan), josten ikasten hasi zen emakume batekin. Ondoren, etxean (Iriberean) hasi zen lanean jendeari arropa josten. 24 urtetan esposatu zen Igantziko Bentara eta han josten jarraitu zuen. Bi seme izan zituen.

181. Eskola etxean zuten (IGA-008/002)

Etxean zuten eskola eta bere bi semeek etxetik atera gabe joaten ziren klasera. Udalak eramaten zien egurra kuadrara eta hor aritzen ziren haurrak egurra xehatzen.

182. Jostun (IGA-008/004)

Ez zen arropa egina erosten, tela erosten zen eta jostunari ematen zitzaion. Geroago, denbora anitz aritu zen gizonen galtzak josten, Donezteben denda zuen Manterolarentzat. Etxalarko "mostreroa" (oihal saltzailea) bizikletarekin ibiltzen zen etxez etxe erakusgaiekin; harentzat ere aritu zen arropak josten. Egunean bi galtza pare josten ohi zituen.

183. Ameriketara izandako osaba (IGA-008/006)

Bere aitaren anaia bat Ameriketara joan zen artzain; handik ekarritako dirua Irungo banketxe batean sartu zuen eta sei hilabetetikan joaten zen diruaren interesak kobratzera. Egun horretan, Irungo denda batean soineko bat egiteko oihala erosten zion beti Inaxiri. Osaba soldadutza egin gabe joan zen Ameriketara eta itzultzerakoan "kuota" pagatu zuen (2000 pezeta) hainbat abantaila izateko: sei hilabeteko zerbitzua besterik ez zuen egin behar, Irungo koartelera joan behar zuen egunero, baina ez zuen bertan lo egin behar.

184. Arropa gutxi (IGA-008/008)

Bera haurra zelarik, jendeak orain baino askoz arropa gutxiago zuen. Igandetako arropa asko zaintzen zuten.

185. Mezara joateko janzkera. Apezaren errietak (IGA-008/010)

Mezara joateko mantelin beltza janzten zuten emakumeek. Emakume batek mantelin zuria eraman eta apezak elizatik kanporatu zuen. Ezin zen galtzerdi eta mauka motzekin joan elizara; "mangitoak" (mauka-erdiak) erabiltzen zituzten udan mezara joateko. Neskatzak bizikletaren barran joaten baziren, Mariaren Alabetatik ("Hijas de María") botatzen zituen apezak.

186. Mariaren Alabak (IGA-008/011)

"Hijas de María" edo Mariaren Alabak izeneko kongregazioa zer zen azaltzen du. Ama Birjinaren estandartearen zuten eta hilabetearen behin, igandearekin, konfesioa eta komunioa izaten zuten; egun horretan zinta zeru-urdina Ama Birjinaren medailarekin eramaten zuten. Ezkongabeak ziren bitartean bakarrik zeuden kongregazioan. Ama Birjinaren egunean, abuztuaren 15ean, prozesioa egiten zuten estandartearekin.

187. Luistarrak (IGA-008/012)

Mutikoak, berriz, Luistarrak ziren, San Luisko kongregaziokoak, eta zinta gorria (San Luisko medailarekin) eramaten zuten. Hilabetearen behin konfesatu eta komulgatzen zuten.

188. Zapatak elizara joateko. Zapataria (IGA-008/014)

Zapatak elizara joateko bakarrik erabiltzen zituzten, bestela espartinekin ibiltzen ziren. Hamasei urte zituela, Elizondotik zapataria etortzen zen kotxe txiki batean, hilabetearen behin.

189. Ezkongai-aldia. Arreoa (IGA-008/015)

Bere senarra nola ezagutu zuen eta ezkongai-aldia nolakoa izan zen azaltzen du. Arreoa prestatu zuen ezkondu aurretik: maindireak, toallak eta mantelak (zamaauak) bordatzen zituen ilusio handiz. Ezkontzarako krepeko barrengo arropak egin zituen ("camisa-pantalón" erreten zitzaion); camisoiak eta bularretakoak ere egin zituen.

190. Ezkon-soinekoa (IGA-008/016)

Herriko jostun batek egin zion ezkon-soineko berdea eta beroki beltza

191. Pregoi-eguna eta bezpera (IGA-008/017)

Pregoi-eguneko bezperan, ilunabarrean, herriko mutil gazteak emaztegaiaren etxera joaten ziren kantatzera akordeoiarekin. Ardoa eta galletak ematen zizkieten. Mutil koadrilari "tobera" erraten omen zioten. Pregoi-egunean, apezak ezkongaien izenak esaten zituen mezan eta ezkontzeko "inpedimenturik" (eragozpenik) bazegoen galdetzen zuen.

192. Ezkontza eta eztei-bidaia (IGA-008/018)

Goizeko 6etan ezkondu ziren eta gero gosaria izan zuten: txokolatea eta bizkotxo. Gero, bere senarraren lengusuak kotxez eraman zituen Donostira (zazpi lagun joan ziren, bere hiru senideak tartean). Han "Kojenea" (Juanito Kojua agian???) jatetxera joan ziren bazkaltzera. Ilunabarrean bere senideak itzuli ziren eta ezkon-berriak Donostian gelditu ziren lotan. Biharamunean Bilbora joan ziren trenez; gerra ondoren dena xehetuta zegoela azaltzen du. Senarrari bi egun libre besterik ez zizkioten eman ezkontzeagatik.

193. Elizan sartzea (IGA-008/020)

Haurra izan ondoren, ama ezin zen etxetik atera hainbat egunetan. Lehenengo ateraldia elizara zen, “elizan sartzea” egiteko. Gero, “serotegian”, seroraren etxean, zerbait hartzen zuten (kafea, galletak...). Elizara kandela eraman behar zen, han piztu eta apezak zerbait errezatzen zuen.

194. Sinesmenak. Teila kendu arima joateko (IGA-008/021)

Lehen, norbait hiltzen zenean, teila bat kendu behar zen arima goiti joateko.

195. Atso-bisitak. Amari oilo salda (IGA-008/023)

Atso-bisitak egiten ziren haurra jaio ondoren. Bere ama eta bere koinata merienda prestatzera joaten ziren bere etxera. Izan ere, igande batean hogeit bat emakume joaten ziren bisitan. Gehienetan oilo gisatua, arroz-esnea eta kafea hartzen zuten. Bisitan etortzen ziren emakumeak zerbait ekartzen zuten, oiloa batez ere. Haurra izan ondoren, zortzi egunez ohean egon behar zuen amak, ez zuen jaiki behar eta oilo salda ematen zioten. Gero, jaikitzen zenean, ez zuen indar handirik.

196. Talotxin haur-kanta (IGA-008/025)

Haur-kanta: “Talo, talotxin, gure haurrak bortz otxin. Hor heldu da amatxi...”

197. Bataioa (IGA-008/027)

Haurra jaio eta segituan, biharamunean, bataiatzen zuten. Udaletxean jaioberria apuntatu behar zen, bestela denuntziatzen zuten. Bataiatu gabe hiltzen bazen haurra, linbora joaten zen (zeru eta infernuaren artean zegoen zerbait zen).

198. Igandeak (IGA-008/029)

Igandetan, elizatik, bezperetatik, ateratzen zirenean, denak kuadrilaka biltzen ziren eta Igantziko bentara joaten ziren. Felipe Lizardik herrietxeko leihotik akordeoia jotzen ohi zuen; bentako garajea ere izaten zen akordeoia. Ez zuten deus hartzen, dirurik ez zutelako. Ilunabarrean, ilun-ezkilak jotzen zuenean, denak etxera; mutilek neskak laguntzen zituzten etxera. Gauean ez zen kaletik inor ibiltzen.

199. Ezkilak 1 (IGA-008/030)

Egunean zehar jotzen ziren ezkilak: argi-ezkila, goizeko seiak aldera, argitzen zuenean jotzen zuen serorak; udan, Piedadeko ermitan, hamabitan jotzen zen ezkila eta landetan lanean zeuden guztiak gelditzen ziren, boneta kendu eta aitarena egiten zuten. Arratsaldean, berriz, hiruretan, hiru ezkil jotzen ziren. Ilunabarrean, ilun-ezkilak, azkeneko ezkilak, jotzen zituen serorak.

200. Serora (IGA-008/031)

Berak bi serora ezagutu ditu Igantzin. Seroraren lana zein zen azaltzen du: besteak beste, elizako eta bertako arropa guztiak garbitu eta “seroraren etxean” (serora ez zen han bizi) noizbehinka egiten ziren meriendak prestatu. Esate baterako, norbait hiltzen zenean, zortzi egunez egunero mezara joaten ziren eta hondarreko egunean kafea eta anisa ematen zen seroraren etxean (hildako familiakoek eramanda).

201. Ezkilak 2 (IGA-008/032)

Baziren beste ezkilak: hil-ezkilak eta erre-ezkilak.

202. Defuntuaren kutxa eraman (IGA-008/034)

Lau gizonak eramaten zuten defuntu-kutxa bizkarrean bidegurutzeraino. Senideak edota auzokoek eramaten zuten eta oihal zuri berezi bat paratzen zuten bizkarrean.

203. Urtezaharretan (IGA-008/036)

Urtezaharretan mutil handiak (haurrak eta neskak ez) etxez etxe joaten ziren kantatzen: "Dios te salve, ongi etorri, Jainkoaren..." Ematen zieten limosnarekin herrietxean bazkaria egiten zuten.

204. Ortzegun gizena (IGA-008/037)

Inauterien aitzineko ostegunean, haurrak etxez etxe eskean ibiltzen ziren: "somos niños de la escuela..." erraten omen zuten.

205. Pobreak, eskaleak (IGA-008/038)

Pobreak egunero joaten ziren eskatzera, zakua bizkarrean; artaburuak ematen zizkieten. Igantziko etxe batean ("karreroaren etxean") biltzen zituzten pobre guztiak lo egiteko.

206. Inauteak (IGA-008/040)

Hiru egun izaten ziren inauteak. Mutil handiak eskean ibiltzen ziren eta biltzen zutena (arrautzak batez ere) herrietxean jaten zuten. Arratsetan akoardeoia izaten zen eta, egun batean, neskak merienda ematen zieten plazan: tortilla pipermorro gorriekin eta ogia. Gero denak dantzan ibiltzen ziren. Mutilak mairuz nola mozorratzen ziren azaltzen du: maskarak eta bi koloreko buzoak janzen zituzten batez ere; arropak Udaletxean gordetzen zituzten urte batetik bestera. Zerrien maskuri idortuak eta haizatuak soka batekin ibiltzen zituzten bueltaka, haurrak izutzeko.

207. Bestak 1 (IGA-008/041)

Lesakako musika banda etortzen zen bestetara. Donostiako familia bat urtero joaten zen Igantzira uda pasatzera eta seme batek apaingarriak paratzen zituen plazan: paperezko farolak eta ezpela. Hainbat ekimen ere antolatzen ziren: egun batean lasterketa herrian barna; beste egun batean soka bat paratzen zuten frontoia tabernara eta han giltzak zintzilikatzen zituzten; mutilek, behorren gainean lasterka, egurrezko gurutze txiki batzuekin giltza hartzen saiatzen ziren. Arratsean musika izaten zen.

208. Bestak 2 (IGA-009/001)

Bestetako hondarreko egunean, lesakarek "fechorías" (gaiztakeriak) egiten zituzten: besteak beste, komuneko atea hautsi. Egurrezko kiosko biribila paratzen zuten herrietxearen kontra eta mendian hartutako ezpelarekin apaintzen zuten. Hamabi urte zituela, su artifizialek izan ziren bestetan.

209. Besten aurreko lanak (IGA-009/002)

Bestak hasi aurretik, etxea kisuarekin zuritzen zuten. Loreak ekartzen zituzten apaintzeko. Dena garbitzen zuten. Koltxoak ere urtero harrotzen zituzten uda aurretik.

210. San Juan bezpera (IGA-009/003)

San Juan bezperan, auzo bakoitzean, bidegurutzean sua egiten zuten eta han saltoka ibiltzen ziren. San Juan bezperan ere landak bedeinkatzen zituen apezak ezpel eta ur bedeinkatuarekin.

211. San Juan (IGA-009/004)

San Juan egunean loreak eta kandelak eramaten zituzten, ez zen mezarik izaten, bisitan joaten ziren San Juanera, eguna pasatzera. Kanpotik medaila saltzaileak etortzen ziren. Bi kantina paratzen zituzten ardoa saltzeko. Akordeoia era izaten zen. Eskaileratan pobreak jartzen ziren eskean. Minaren bat zutenek hiru iturrietako ura hartu eta garbitzen zuten; erabiltzen zituzten toallak larreetan uzten zituzten idortzeko.

212. Fabrikak (IGA-009/006)

Berak ez zuen portzelana-fabrika ezagutu. Oso txikia zenean, karro eta behiekin okrerara lur gorria ekartzen zutela gogoratzen du.

213. Gasolindegia (IGA-009/007)

Betidanik ezagutu du gasolindegia errepide nagusian; inguruko bakarra zen.

214. Eskola (IGA-009/009)

Eskolan lehenbiziko pisuan mutikoak eta bigarrenean neskak zeuden. Etxe berean maisua eta maistra bizi ziren (senar-emazteak ziren). Haur anitz zeuden. Bi liburu zituzten: elementala eta maila ertainekoa, ikasgai guztiekin; eskola urte guztietan ez zuten besterik erabili. Mahaiak nolakoak ziren azaltzen du. Tinta erabiltzen zuten idazteko; arbel txikiak ere bazituzten. Hondarreko egunean, udaleko kideak joaten ziren eskolara; mahaietan laboreak eta loreak paratzen zituzten apaintzeko eta maistrak zenbait galdera (azterketa gisa) egiten zizkien.

215. Sinesmenak. Lamiak (IGA-009/011)

Lesakarako bidean, hilerri ingurutik pasatzerakoan, sua ateratzen zela erraten zen; eta errepide ondoko bihurgune batean gizon bat ateratzen zela. Bentetako bihurgune batean, Lasastiko errekan, lamiak ateratzen zirela erraten zen. Lami bati arropa kendu eta mozorroturiko apez bat zela ikusi zutela erraten zen. Lamiak eta sorginak gauza bera.

216. Gaizki-ulertuak. Istorio bat (IGA-009/013)

Aintzineko gerra batean, soldaduak Argatarako etxe batera etorri omen ziren. "Sal señora" esaten zioten etxeko emakumeari, baina emakumeak ea gatzik zuten ulertu zuen.

217. Gerraostea. Errazionamendua (IGA-009/015)

Gerraostean miseria izan zen. Errazionamendua zegoen eta berehala amaitzen zen ematen zutena, batez ere familia handitan. Frantziara joan eta

ogi handiak ekartzen zituzten estraperloan, kontrabandoan. Igantzikoek ez zuten goserik izan, nekazariak zirelako gehienak eta arto-opilak, esnea eta eltzaria beti izaten zutelako.

218. Sagarrak eta sagardoa (IGA-009/016)

Sagardi anitz zen Igantzin. Bere gizonaren baserrian sagardoa egiten zuten. Sagardoa nola egiten zen azaltzen du: egurrezko azpiletan, pisoiarekin sagarrak zanpatzen zituzten; gero beste azpil berezira (erdian burni bat zuena) pasatzen zuten eta han bueltak ematen zizkieten; ateratzen zen likidoa barriketara pasatzen zen eta, denbora pasata, irakiten hasten zen. Gero eztaltzen zuten, sagardoa egin arte. Jeneralean sagar geza zuria eta gorria erabiltzen zituzten. Sagar gaziek (kamutsak, sunbildarrak...), berriz, ez zuten sagardoa egiteko balio.

219. Saskigileak (IGA-010/001)

Lehen Igantzin saskigile anitz zeuden (45 bat) . Orain bera bakarrik aritzen da saskiak egiten. Mendian bazen saskiak egiteko gai on eta anitz: gaztain berezia, basaka zen; hori bota eta hurrengo urtean muskila ateratzen zen berriz; lau urteren buruan mozten ziren saskiak egiteko. Gero pinu paratu zuten. Arantzan eta Lesakan bina saskigile zeuden.

220. Saskiak egiten hasi zen (IGA-010/002)

Lehengusu batekin ikasi zuen saskiak egiten. Baserri berean bizi ziren bost senide eta hamar lehengusu, besteak beste. Garai hartan arrainetarako saski anitz egiten ziren: gogorak izan behar ziren, pisu anitz eramateko eta arrastaka ibiltzeko portuetan. Osaba zurgina zen eta aroak egiteko molde bat egin zien (guztiak tamaina berekoak egiteko).

221. Sasaki klaseak (IGA-010/003)

Arrainetarako saskiez gain, lanerako saskiak egiten ziren. Artoa biltzekoari saski-hondaia, buruzare edo hondar-saskia erraten zioten. Hiru neurriko saskiak egiten ohi ziren: mehar-saski txikiak, ertainak eta handiak. Batzuetan handiagoak enkargatzen zizkieten. Diputaziorako saski piloa ere egiten zuten, legarra eta harria zabaltzeko, bertzeak bertze. Txikia patata biltzeko erabiltzen ohi zen eta ertaina, berriz, harri-ikatz pisutan paratzeko. Asto-saski anitz ere egiten ziren: goitik eta behetik irekia zen eta ataka bat paratzen zitzaion behean, astoak zeramala deskargatu ahal izateko. Molderik gabe egiten ziren.

222. Saskiak kanpora saldu (IGA-010/004)

Saski anitz Pasaiaiko portura saltzen ziren. Astero saskiz betetako kamioi bat eramaten zuten Lesakatik. Garai batean, egiten zuten guztia Pasaiairako zen. Igande goizean ekartzen zioten dirua etxera. Lehen ez ziren onddotako saskiak (esku-sareak) egiten; orain, berriz, piloa saltzen da.

223. Materiala hartu eta landu (IGA-010/005)

Materiala San Migel eguna pasaz gero, izerdia bajatuta, noiznahi hartzen da, saskiak egiteko. Baina, putzuan sartzeko, martxo aldera botatzen da. Beraz, neguan bota behar da; udan botatzen baduzu, azala joaten zaio. Moztu ondoren, kanpoan uzten da idortzen. Labetik atera eta uretan sartuta, biharamunerako bera-bera egina da. Lehen, ez zekien labearena eta hamabost egun izan behar zuen materiala putzuan beratzen. Putzutik atera

ondoren, labean sartzen da berriz berotzeko eta guri-guri jartzeko; ondoren saskiaren neurriaren arabera aroa egiten da moldeekin.

224. Saskiak egiteko prozedura (IGA-010/006)

Saski bat egiteko, lehenbiziko ipurdia egiten da; saskiaren neurriaren arabera moldeak erabiltzen dira. Ipurdia egin ondoren, bueltaka goratu behar da, eta hori txarrena da. Zumitzek denbora piloa behar dute egosten. Saskia nola egiten den azaltzen du. Eskuz egiten da dena; matxetea ere erabiltzen da.

225. Materiala. Muskilak, pufak (IGA-010/007)

Materiala (saski-gaia) botatzen duzu eta horrek ateratzen du pufa beheiti goiti (lehenbiziko urteko muskilari erraten zaio pufa); bost edo hamar pufa ateratzen dira, baina, denak ez dira salbatzen. Lehenbiziko urtean metro eta erdi hazten dira muskilak (pufak). Gero, hurrengo urtean, muskil horren puntatik adarrak ateratzen dira; adarretatik, behetikoek bakarrik balio dute (goitikoak samurrak baitira). Lehenago gaztain anitz zegoen, mazel handiak botatzen ziren eta denentzako material hagitz ona izaten zen. Orain, gaztainak botatzen ez direnez, gaitza izaten dute eta ez dago materialik.

226. Gaztain klaseak (IGA-011/001)

Lehenengo gaztain klaseak: lehenbiziko ontzen zen San Migel gaztaina, bestetarako. Ondoren beste gaztain handi bat izaten zen: Arginorda-txertoa; gero "txertagorria" eta, ondoren, gaztain-gorria. Gaztain japonesak, berriz, txarrak dira. Hondarrean, "anbultsa" klasea izaten zen. Gaztainak Sanjuanak arte mantentzen zituzten.

227. Gaztainak kontserbatu (IGA-011/002)

Gaztainak kontserbatzeko eskortak egiten zituzten: mendian harriekin egindako pareta biribilak; han gaztainak hezetasunean egoten ziren. Etxera eramateko karroa erabiltzen zuten; han beheitin (kortan-edo), toki ilun batean izaten zituzten. Bere aitak noizbehinka makuarekin mugitzen zituen eta ur-tanta batzuk bota. Sanjuanak arte izaten ahal ziren han gaztainak

228. Gaztainak hustu. Anekdotak (IGA-011/003)

Gaztea zelarik, etxe batean hamazazpi egun pasatu zituen gaztainak husten. Haga luzea erabiltzen zuen onduenak bakarrik botatzeko; zortzi egun ondoren, haga berriz pasatzen zuen. Hirugarren pasada bat ere egin zuen

229. Gaztain biltzera (IGA-011/004)

Gaztain biltzera bostpasei lagun joaten ziren. Morkotsak matsardekin biltzen zituzten eta saskietan sartu. Batzuk arboletan igotzen ziren, goiko morkotsak botatzeko. Morkotsak eta "miauriak" (gaztain pikorrak) bereiztuta bildu behar ziren: miauriak mantalara eta morkotsak saskira. Gaztain piloa saltzen zen; etxeko ere gaztain anitz altxatzen ziren eta, sobratzen zirenak, zerriei ematen zizkieten. Morkotsak botatzen zituzten.

230. Gaztainondoak txertatu (IGA-011/005)

Lehen, gaztainondoak txertatzen ziren, baina gero txertatzeari utzi eta gaztainak galdu dira. Teknika ezberdinak zeuden, baina berak ez zuen egiten. Mentuak urteko muskila izan behar zuen.

231. Erleak. Kaxak eta eultzeak (IGA-011/007)

Lehen, etxe aunitzetan izaten ziren erleak. Erleak kontzeko hiru leku daude. Beraiek kajak erabiltzen zituzten (bi ataka zituzten). Toki ilunetan egon behar du kaxa, bestela erleek ez dute ezirik egiten. Lehen zailagoa zen eztia kentzea, gaur egun, berriz, kaxa modernoetan dauden panelekin askoz errazagoa da. Igantzin eultze gutxi izaten zen, Arantzan, berriz, aihenekin egindakoak izaten ziren (lohi eta behi-kakarekin estalita)

232. Erleak. Anekdotak (IGA-011/008)

Erleak zaindu behar dira; gaur egun azukrea ematen diete. Haritzetan okilek egindako zuloetan sartzen ziren erleak; bere etxe ondoan zegoen haritza bota eta moztu zuten, erlategi bezala uzteko.

233. Erle bila joaten ziren (IGA-011/009)

Asuraraino joaten ziren erle bila. Igandetan, meza ondoren erle bila joaten ziren. Aire beroa behar da; erreka jarraitzen zuten, erreka bazterrei begira, ea erleren bat ura edaten ikusten zuten. Begira egoten ziren, erletokira itzultzen zirenean jarraitzeko. Batzuetan, baina, ordurako erlea harrapatuta zegoen, arbolan gurutzea baitzegoen. Gurutzea zeharo errespetatzen zen. Erlea sartzen zen tokian egiten zen gurutzea arbolan.

234. Erleak hartu, lekuz aldatu (IGA-011/010)

Erleak hartu eta lekuz kanbiatzeko zer egin zuen azaltzen du. Erregina sartu behar da aurrenekoz eta gero saskian jo eta txistu egin behar da beste erleak sarrarazteko

235. Erleek ausiki ez egiteko (IGA-011/011)

Erleek ausiki ez egiteko, ez dira eskuak mugitu behar; ez dituzu uxatu behar, geldirik egon behar duzu. Dena dela, ausiki eginez gero, lur idorrarekin edo baratxurirekin igurtzi behar zen

236. Erleek jendea ezagutzen omen dute (IGA-011/012)

Erleek jendea ezagutzen dutela erraten da.

237. Apoek eta sugeek erleak jaten zituzten (IGA-011/013)

Apoek eta sugeek erleak jaten zituzten.

238. Eztia kendu (IGA-012/001)

Erleei nabalarekin kentzen zitzaien eztia; berehala eraman behar zenuen ateratako eztia, bestela, erleak erakartzen zituen. Anekdotak bat kontatzen du (peñetako zulo batean zeuden erleekin gertatutakoa). Etxeko erleak ez dira hiltzen eztia kentzeko. Amonsariak ere kentzen dira, bide batez, txarrak baitira. Kanpoko erleak normalean arboletan daude eta eztia kentzeko sufrearekin hiltzen dira.

239. Mustrillua eta argizaria (IGA-012/002)

Bereska (abaraska) hartu ondoren, eztia kentzen zen eta ontzi batean paratu. Hatzaparrekin zanpatzen zen eta eztia ateratzen zen. Gero oihal berezi batera botatzen zen eta hartan pasatu. Hala ere, bereska zatietan eztia gelditzen zen eta hori kentzeko ur berotan sartzen zituzten (ez zen ur beroegia jarri behar,

bestela argizaria urtzen baitzen). Gero eltze batean paratzen zen ura eta utzi; aparra kendu eta mustrillua egiten zen: irina botatzen zen loditzeko eta gero intxaur mordoska. Azkenik, mustrillurako erabiltzen ez zen zaborrarekin argizaria egiten zuten. Argizari mehe eta luzea egiten zuten eskuekin; solairuari emateko ere erabiltzen zuten .

240. Erle klaseak (IGA-012/003)

Erle klaseak: erle-beltza (eztirik onena egiten duena) eta erle-gorria (motzagoa dena eta okerragoa). Erregina ezinbestekoa da; arrautz anitz egiten dituzte. Erlamanduak, berriz, handiak izaten dira; uda partean ibiltzen dira ezta egiten eta hiruzpalau erle lotzen zaizkio. Erregina beste erleak baino luzeagoa da.

241. Erleen kutzak tokiz aldatu (IGA-012/004)

Erleek elkar ezagutzen dute. Behin kutzak lekuz aldatu zituzten eta erleak zeharo nahastu ziren.

242. Erleak. Sinesmenak (IGA-012/005)

Erleak ezin direla saldu aditu du beti; trukean eman daitezke bakarrik. Norbait hiltzen zenean, erleei abisatzen omen zitzaien. Bere aitak eta orduko zaharrek solasa egiten zieten erleei

243. Onddo klaseak 1 (IGA-012/006)

Bortzirietan onddoa, gorringoa (orain gutxi dago), ziza-horia, gibel-urdina eta belagietan ateratzen den ziza zuria biltzen dira.

244. Onddoak noiz ateratzen dira. Baldintzak (IGA-012/008)

Onddoak ateratzeko nolako baldintzak behar diren azaltzen du: eguzki lekua, toki idorra, arbolak (haritz arbola amerikanoa batez ere) eta euria behar dute. Urrian atera ohi dira. Ilbeheran ateratzen direla erraten da. Gorringoak ateratzen hasten direlarik, onddoak amaitzen dira.

245. Onddoak nola bildu (IGA-012/009)

Onddoak biltzerakoan, ipurdia utzi behar dela erraten da. Onddoen "lorea" nolakoa den azaltzen du; hura usteltzen den tokian ateratzen da onddoa.

246. Onddoak nola prestatu (IGA-012/010)

Onddoak nola prestatzen dituen azaltzen du: nabalakin ongi garbitu eta xehatu; tipula eta baratxuria oliotan paratu eta hara bota. Lehen ez ziren kontserbatzen.

247. Onddo klaseak 2 (IGA-013/001)

Badira hiru onddo klase: onddo zuria (oso handia), onddo beltz txikia (onena, barrutik zuri-zuria eta multzoka ateratzen dena) eta onddo beltz handia.

248. Onddoak. Sinesmenak (IGA-013/002)

Onddoak bat batean ateratzen direla erraten da, baina berak ezetz erraten du

249. Onddoak. Sekretua gorde (IGA-013/003)

Jendeak ez du erraten onddoak non diren, sekretua gordetzen du. Batzuetan gezurra era erraten da. Argitu baino lehen joaten da jendea linternekin onddoak biltzera

250. Perretxikoa ona den jakiteko (IGA-013/005)

Perretxikoa ona den jakiteko zer egiten da. Bada gorringoaren itxura duen perretxiko pozoitsua. Onddo beltzaren itxura duen beste perretxiko bat bada, baina berdatzen da.

251. Mendi mutil joan zen (IGA-013/006)

Zortzi urtez mendi mutil izan zen Iratin (Orbaizetan, Otxagabian, Izaban eta abar). Saskiak egiten aritzen ziren, baina ez zuten ia sosik ateratzen eta mendira joan behar izan zuten. Igantziko bat aurretik joana zen eta horren bitartez Auritzera (Burguete) joan zen; gero Garraaldara aldatu ziren eta zazpi hilabete pasa zituen. Arantzako mutil piloa Frantziara joan ziren. Bera beti nagusi urroztar batekin joan da.

252. Arbolak bota. Egurra nola jaitsi menditik (IGA-013/007)

Lehenbiziko urtean arbolak botatzen eta zuritzen aritu ziren. Egurra idortzen zenean, erre kara botatzen zuten eta poliki-poliki urte giraino eramaten zen; neguan, urte giria betetzen zelarik, ateak ireki eta egurra Agoizko zerrategiraino jaisten zen. Gero kablea paratu zuten eta, beranduago, pistak egiten hasi ziren. Erreka ondoraino mando eta idiekin eramaten zuten egurra.

253. Egurra aziendari lotzeko tresnak (IGA-013/008)

Aziendari egurra lotzeko balantzina erabiltzen zuten.

254. Lan-istripuak mendian (IGA-013/009)

Mendian urtero istripuren bat izaten zen; batzuetan hiltzen ziren. Bera lanean zela, bat hil zen: malda handia zen, izugarri toki txarra, barrankoa zen (sakana); arbolak harkaitzen gainean zeuden eta ataka batera bota behar zituzten arbolak. Atakatik arbolak zeuden tokira lanera igotzen ari zela, goitik botatako arbolak eman omen zion. Iratiko etxearen ondoan beste istripu bat izan zen: arbolak zuritzen ari ziren eta lauzpabost enbor gainean erori zitzaizkion; Orbaizetara mandoekin eraman omen zuten eta sendatu zen.

255. Etxolak. Estakistak eta kontratistak (IGA-013/010)

Arbolak botatzen zutenak estakistak ziren eta, biltzen zituztenak, kontratistak. Txabola ezberdinetan egoten ziren. Estakisten txabolan hogeit lagun inguru izaten ziren. Tokiz aldatzen zutenean txabola berria egiten zuten; nola eraikitzen zuten azaltzen du. Kamainak bi aldeetan paratzen zituzten (arbol adar, ainar, iratze eta abarrekin egindak) eta erdian sua egiten zuten.

256. Hotza. Arropa (IGA-013/011)

Zazpi edo zortzi hilabete pasatzen zituzten mendian lanean. Iratin hotza egiten zuen, horma izaten ohi zen. Bortzegiak eta bizkarlarrua janzen zituzten. Gero Frantziatik, kontrabandoan, katiuskak ekartzen hasi ziren. Plastikozko kapelak erabiltzen zituzten, ez bustitzeko. Atorra eta txalekoa eramaten zuten bizkarlarruaren azpian.

257. Lan ordutegia. Garbiketak (IGA-013/012)

Hamabi ordu inguru pasatzen zituzten egunero lanean, igandetan ezik. Lehenengo bi urteetan, igandeetan ez zuten lanik egiten; hurrengo urteetan, berriz, eguerdira arte. Igande arratsalde batzuetan arropa garbitzen zuten (bi galtza parekin egiten zuten urte guztia). Aurpegia garbitzen zuten bizarra kentzeko eta ilea nagusi batek moztzen zien

258. Zer jaten zuten (IGA-013/013)

Nagusiek ez zieten razionerik ematen. Gosaltzeko beti baba, bazkaltzeko baba (udan, arrantxeroak saldarekin zopa egiten zien), ogi koskor bat eta ardoa. Afaltzeko, egun batean patata egosia eta bestean garbantzuak. Noizbait, batzuen artean "razionea" erosten zuten eta merendu ona egiten zuten. Arrantxeroak prestatzen zuen bazkaria eta, gero, pintxeak banatzen zuen. Oihu egiten zuten bazkaria prest zegoela abisatzeko. Bakoitzak bere goilara zuen, baina denek azpil beretik jaten zuten. Kazkabar edota euria ari zuela, "ez zen azpileko salda inoiz amaitzen".

259. Arpana eta aizkora bakarrik (IGA-013/014)

Arpan eta aizkorarekin botatzen zituzten arbolak. Ez zen motozerrarik.

260. Ilargiariari begiratu. Kablea (IGA-013/015)

Nagusi zenbaitek begiratzen zioten ilargiari eta arbolak ilbeheran botatzen zituzten. Beste batzuek, berriz, ez. Kablean, behean, bizpahiru lagun izaten ziren enborrak deskargatzen eta goian, beste hiru edo lau kargatzen. Kargaderoraino mando eta idiekin eramaten zuten egurra. Zazpi edo zortzi kilometroko kableak izaten ziren

261. Lanean egarri (IGA-014/001)

Lehenbiziko urtean egarria pasa zuen, berarekin lan egiten zuen igantziarrak ura edateak kalte egiten ziola erraten baitzion. Noizbehinka, pintxea pasatzen zen eta berak trago ederra egiten zuen.

262. Soldaduska Iruñean egin zuen (IGA-014/002)

Soldaduska Iruñean egin zuen. Berak ogia ekartzen zuen goizero kopainia osoarentzat. Oso ongi jaten zuten eta gizendu zen. Gainera, ez zuten deus egiten. Aldaketa handia izan zen, gero, mendira lanera joatea.

263. Arbolak botatzeko teknika (IGA-014/003)

Mendian hasi zenean, ez zuen aizkora handiarekin ibiltzeko ohiturarik. Bi lagun artean, arpanarekin, moztzen zituzten arbolak. Aurrenekoz koska egin behar zitzaion arbolari, zein aldera erortzea nahi zenuen arabera.

264. Santa Domingo eskalea (IGA-014/005)

Santa Domingo eskale bat zen. Penitentzia gisa behatzetan alanbreak paratu eta zauriz beteta zituen. Zakur bat izaten zuen gerritik lotuta. Zulo batean edo borda batean bizi ohi zen eta eskean ibiltzen zen; erreguka aritzen zen eta ekaitzak gibelerat bidaltzea lortzen zuela erraten zuen.

265. Eskale eta ijito anitz (IGA-014/006)

Eskale eta ijito anitz izaten zen orduan

266. San Juan Xar (IGA-014/007)

Lehenago, San Juan Xar txabola txiki batean zegoen. Santu txiki eta beltza zen. Aitak kontatzen zionez, Arantzakoek gauez Arantzako lurretara pasatzen omen zuten satua eta goizez Igantzikoetan izaten omen zen berriz. Santu berria ekarri behar zutenean, santu zaharra Igantziko elizara prozesioan eramane zuten. Obra egin zuten, auzokoak hiru egunez egon ziren harkaitza hausten laguntzen eta santu berrirako zuloa moldatu zuten. Estatua ikusi zutenean harritu ziren: 1400 kilokoa eta zuri-zuria zen. Idiekin eta lerakin igotzea lortu zuten; baina, gero, eskailera batzuk jaisteko kable bat erabili behar izan zuten. Urteak pasata, kolorea aldatu du.

267. San Juan eguna (IGA-014/008)

Lehen, San Juan besta eguna zen, oraingo bestak bezala. Bezperatik hasten ziren besta egiten. Pilota partida izaten zen beti San Juan egunean. Bezperan ziri batzuk prestatzen zituzten, lehertu eta bertan erramu hostoak, lizarra eta elor-zuria sartzen zituzten. Makil hoiek lursailetan paratzen zituzten eta, ur bedeinkatua bota ondoren, lursaila bedeinkatuta gelditzen zen. Oilo bat hiltzen zuten besta egunean jateko. Jende piloa etortzen zen; hamahiru kantina paratzen zituzten (ardoa, salda eta ogitartekoak ematen zituzten). Jende piloa oinez etortzen zen Oiartzundik, gauez. Iturrira oinutsik joaten ziren gero garbitzera. Bi akordeoi izaten ziren han eta herrian ere musika izaten zen. Jendeak kalitxak eta bestelako gaitzak sendatzen direla erraten du.

268. Inauteak (IGA-014/009)

Lehen bi egun irauten zuten inauteek. Mutilak txez etxe eskean ibiltzen ziren; gero akordeoia paratzen zuten plazan eta neskeei moskatela eta galletak ematen zizkieten. Gero, mutilek afaria egiten zuten bildutakoarekin. Mozorrotzeko arropa zaharrak erabiltzen zituzten

269. Urtezahar eguna (IGA-014/010)

Urtezaharrean, gau osoan etxez etxe eskean ibiltzen ziren mutil gazteak (sosa ematen zieten). Abesti bat kantatzen zuten (atzendu zaio) eta bertsoak botatzen aritzen ziren. Batzuetan akordeoia ere izaten zen. Alkateari baimena eskatu behar zioten aurretik, eta honek baldintza bat jartzen zien: aurreneko etxea apezarena eta, bigarrena, alkatearena izan behar ziren. Bi urtez, Urteberrin, bazkariaren ondotik, neskeei moskatela eta galletak atera zizkieten.

270. Igantziko fabrikak eta meategi zaharrak (IGA-014/012)

Igantzin teila fabrika bat zela entzun du. Galdategi bat ere izan omen zen gorago, meategi baten ondoan; bagoi-bide bat non zegoen ere azaltzen du. Zeta egiten zela aditu zion aitari eta, horregatik, "sederi" erraten zaio horko mendi bati.

271. Haria egin (IGA-014/014)

Amak ilea erosten zuen, haria egiteko; lauzpabost ardi aukeratzen zituen (zurda hoberena zutenak, ile onena). Ilea errekan garbitzen zuen eta, neguan, harrotzen zuen. Gero, etxeko pasillo luzean amari haria egiten laguntzen zioten seme-alabek. Amak etxeko guztientzako urte osorako txapinak egiten zituen.

272. Ameriketara joan zen. Bidaia (IGA-015/002)

1965an joan zen Ameriketara koadrillako beste batzuekin. Lesakako taxista bat eta Elizondoko emakume bat ziren bidaia antolatzen zutenak. Bilbon artzain lanari buruzko galdera batzuk erantzun behar izan zituzten, proba moduan. Renorako bidaia azaltzen du, baita aurreneko egunetan egindakoa ere (lanerako arropa erosi zioten...). Arrantxoan (etxaldean) jateko ematen ziotena azaltzen du.

273. Renoko artzain lana (IGA-015/003)

2000 ardi inguru zituzten eta lan ikaragarria zen umatze garaian (besteak beste, ura eta pentsua eman guztiei eta bildotsei begiratu). Ardi partida batekin mendira atera zenean, errifle bat eman zioten. Mendian tipi baten barruan, "katre" (etzaleku) txiki batean egiten zuen lo; astoaren gainean eramaten zuen hori guztia. Mendiko bizia eta lana nolakoa zen azaltzen du. Ardiak alde batera eta bildotsak kontrakora joaten ziren, askotan galtzen ziren...; etsita zegoen eta itzultzekotan ibili zen. Nagusiak ere arrantxoan lan egiteko ona zela, baina mendian arditan ibiltzeko txarra zela esan zion. Bere lagun bat Koloradon zegoen eta hara bidali zuten emigraziokoek.

274. Koloradora joan zen (IGA-015/004)

Koloradoko nagusia Sunbillakoa zen. Hasieran "rantxero" (sukaldari) lana egiten zuen; gero mendira arditara bidali zuten, baina Renon baino ardi eta bildots gutxiagorekin. Ogia egiten hasi zen, baina oso gaizki ateratzen zitzaion; behin, arrautzak egiteko, olio zelakoan, sirope erabili zuen. Galdu zeneko gauaren anekdota kontatzen du. Maiatzean mendira igotzen ziren eta irailean jaisten ziren. Rantxero jarri zuten berriz, hamazazpi lagunentzako janaria egiten zuen.

275. Ogia nola egiten zuen (IGA-015/005)

Rantxero zela, ogia egiten ikasi zuen. Ogia nola egiten zuen azaltzen du (irin ona, ur epela, gatza eta orantza); hiru masada egiten zituen.

276. "Rantxero" (sukaldari) lana (IGA-015/006)

Denetarik sukaldatzen zuen; postre anitz ere egiten zituen. Goizeko bostetan jaikitzen zen gosaria egiteko; esne, arrautz eta azukrearekin egindako opilak eta arrautzak (gainetik siropea botata) gosaltzen zuten. Ondoren, dena garbitu, ogia egin eta bazkaria prestatzen zuen (hamabi t'erdietan bazkaltzen zuten); zazpietarako afaria prestatu behar zuen berriz. Zer jaten zuten azaltzen du: amuarrainak, zerri-txuletak, fileteak, gisadua, oilaskoa...denetarik zuten.

277. "Kanpero" lana (IGA-015/007)

Gero "kanpero" joan zen basamortura sei hilabetez, lau mando eta bere zaldiarekin. Artzainen gauza guztiak eramaten zituen alor batetik bestera. Izan ere, 2500 ardi zituzten eta asko jaten zuten, behin eta berriz tokiz aldatu behar zuten. Belar idorra jaten zuten ardiek; elur anitz egiten zuenean, berriz, artoa kamioietan eramaten zieten eta berak zakuak mandoekin eraman eta ardiei ematen zien

278. Hesiak egiten (IGA-015/008)

Arizonako nagusi batek peoiak eskatu zituen eta hara eraman zuten. Rantxero paratu zuten, baina han ez zen hainbeste jaki, ardi zaharrak jaten zituzten batez ere. Hiru hilabete ondoren, berriz Koloradora itzuli zen. Hamaika lagunekin "zerrakurak" (hesiak) egiten ibili zen mendian.

279. Ameriketatik bueltan (IGA-015/009)

Lau urte ondoren, Ameriketatik etorri zen, bere lagunaren semearen jaunartzera. Itzultzeko asmoa zuela-eta, bere gauza guztiak han utzi zituen; baina hemengo neska bat ezagutu zuen eta ez zen itzuli. Ameriketara 22.000 irabazten zituen eta hemen, berriz, 3.000. Urte bete Donostian izan zen igeltsero.

280. Non egiten zuten lo. Zakurrak (IGA-015/011)

Errepidea iristen zen tokietan rulota izaten zuten, baina, gehienetan, bidexkak ziren eta ezin zen eraman. Gehienetan dendatan egiten zuten lo, militarren katre (etzaleku) batzuetan; burnizko sukalde txiki bat ere izaten zuten. Zakurrek ere denda barruan egiten zuten lo, ardi-larruen gainean. Makarroiak koipearekin eta ardi zaharren saihetsak-eta jaten zituzten zakurrek. Artzainarentzat oso lagungarria zen zakurra.

281. Ardi zaharrak (IGA-015/012)

Ilunabarrean, artzainak ardiak biltzen zituen poliki-poliki zaldiarekin. Ardi zaharrak, gauetan hormatzen ziren eta goizean ezin ziren bakarrik altxatu. Ardi zaharrak hiltzen zirenean, larrutu behar zituzten eta nagusiari azaldu nola hil ziren.

282. Koiotea eta beste animaliak. Tranperoak (IGA-015/013)

Gobernuko tranperoak joaten ziren koioteen kontrako tranpak jartzera. Koioteak ezezik, lehoiak, erbiak, untxiak, basoilarrak eta ahateak izaren ziren Ameriketara, besteak beste. Hartzak ere izaten ziren.

283. Garbiketa (IGA-015/015)

Basamortuan, mandoekin eramaten zuten ura (agian lau orduko bidaia eginda) eta barreinu (azpil) handi batean garbitzen zuten gorputza; ondoren arropa garbitzen zuten han. Palangana (garbiontzi) txikiago bat ere bazuten hiru hanken gainean paratuta eta ondoan xaboi-pastilla bat; hor aurpegia garbitzen zuten hiruzpalau aldiz egunean.

284. Janaria (IGA-015/016)

Zakurrei ardi zaharren haragia ematen zieten, beraie, berriz, bildotsak jaten zituzten. Nagusiek, besteak beste, esparragoak, lekak eta alcachofak eramaten zizkietan. Oso ongi jatzen zuten.

285. Frantziara mendira eta harrobian lanean (IGA-015/018)

Ameriketatik itzuli ondoren, Frantziara mendira joan zen eta han bi urte izan zen lanean. Azkenik, harrobian hasi zen lanean eta 30 urte egin ditu han, jubilatuta arte.

286. Ura (IGA-015/019)

Ameriketan, segun zein parajetan, ur gazia izaten zen (kotoi-landaretik ateratzen zena adibidez) eta ospina botatzen zioten edan ahal izateko. Gauaz, kotoi-landaretik ura goiti ateratzen zen eta plastiko bat jartzen zuten ura gordetzeko. Basamortuan zeudela, berriz, neguan elurra urtzen zuten (ardiek ere elurra janda ez ziren egarri). Urmaelak zeudenean, ardiak edatera joaten ziren, neguan horma hautsi behar zen.

287. Janzkera (IGA-015/020)

Ameriketan, hango arropak janzten zituzten.: atorra eta galtza bakeroak, "cowboyen" botak, zapia eta kapela. Hemen baino merkeagoa zen han arropa.

288. Ingelesa (IGA-015/021)

Ameriketara iritsi zirenean ez zekiten ingelesez. Aurreneko nagusiarekin arazoak izan zituen. Dena dela, keinuekin ederki konprenitzen ziren

289. Soldaduska eta Ameriketara joan (IGA-015/022)

Berak ez zuen soldaduska egin behar, bista zela-eta. Ameriketara joateko baimena arazorik gabe lortu zuen. Dena dela, han zegoela, urtero kartilla militarra pasatzera joan behar zuen. Bere adineko beste mutil batzuk Ameriketara joan ziren soldaduska ez egiteko; batzuk, baina, itzuli zirenean egitera behartu zituzten.

290. Ameriketatik ekarritako dirua (IGA-015/023)

Ameriketan izandakoek, herrira itzultzerakoan, irabazitako diruarekin etxea erosten zuten gehienetan. Baten batek kamioneta bat erosi zuen.

291. Frantzian mendian lanean (IGA-015/024)

Ameriketatik itzuli ondoren, Frantziara joan zen lanera. Egun osoa mendian izaten ziren. Aurrenekoz, txabola eta ohatzeak egin zituzten. 18 lagun ziren eta binaka egiten zuten lo. Goizean, udan, 6etan jaikitzen ziren, kafea hartu, zatoa bete eta lanera. Gero, sukaldaria joaten zen gazta eta txokolatearekin eta bederatziak aldera gosaltzen zuten. Ordu batean, rantxeroa igotzen zen berriz eltze handi batekin eta bazkaltzen zuten: besteak beste, gisatua, zerri-txuleta, oilasko errea eta ogia. Gero berriz lanera, ilundu arte. Udan, arratsaldeko 6etan askaria hartzen zuten: txokolatea, gazta eta ardoa. Iluntzen zenean, txabolara jaisten ziren eta sukaldariak prestatutako patata salda jaten zuten lo egin aurretik.

292. Arropa garbitu mendian (IGA-015/025)

Astean behin, arropa garbitzen zuten. 200 litroko bidoian paratu ura irakiten eta han sartzen zuten arropa. Ziri handi batekin bueltak eman eta beratzen zen arropa. Igandetan sukaldariarekin adosten zuten zer jan.

293. Mendiko lana (IGA-015/026)

Lan onena egiten zuela esaten du. Kateekin egurra ateratzen zuen, hiruzpalau metro kubikoko abetoak ziren. Hiru edo lau lotzen zituen kateekin eta kamioia zegoen tokiraino eramaten zituen. Beste lagunek beste lanetan ibiltzen ziren: besteak beste, motosierrarekin arbolak botatzen, aizkorarekin adarrak kentzen eta azalak kentzen. Arbolak eskuz kargatzen zituzten kamioietan.

294. Igandeak. Pastis eta bazkari ona (IGA-015/027)

Igandetan hamabi t'erdiak arte egiten zuten lan. Menditik jaitsi eta, lehenik eta behin, Ricard edaten zuten. Jaten ari zirenean diziplina handia zegoen, eta norbait gaizki portatzen bazen (adibidez mahaian puzker bat botata), pastis edaririk gabe gelditzen zen eta hurrengo botila berak ordaindu beha zuen. Bazkaria ere hobeagoa zen igandetan: ogi berria, oilaskoa, tomate eta letxuga... Iratin, berriz, babak besterik ez zuten jaten.

295. Soldata. Ardoa (IGA-015/029)

Frantzian 21.000 pezeta irabazten zuen hilabetero, Ameriketako baino mila pezeta gutxiago. Nahi adina ardoa ematen zieten; ardo garratza sifoiarekin nahasia.

296. Harrobian lanean (IGA-015/030)

Frantziatik etorri bezain laster, harrobian hasi zen lanean. Lehenbizi kamioeikin hasi zen materiala ateratzen eta gero makinista izan zen. Bera hasi baino hiru urte lehenago paratu zituzten makinak. Harrobiko lana nolakoa zen azaltzen du, baita erabiltzen ziren makinak ere. Jubilatu arte lan egin zuen harrobian; oso lan gogorra eta arriskutsua zen bertakoa. Bederatzi langile ziren.

297. Bonbak eztanda egin eta zauritu ziren (IGA-016/001)

1951ean, zortzi urte zituela, tomate pote antzeko zerbait aurkitu zuten eta haur guztiak ostikoka ibili ziren harekin jolasean egun osoa. Azkenik, harri handi batekin jo eta eztanda egin zuen. Ondoan zegoen haurra hurrengo egunean hil zen eta bera eta bere bizkia oso larri zauritu ziren. Bi urte baino gehiago izan zen ospitaletan

298. Haurtzaroa. Baserriko bizitza. Janaria (IGA-016/002)

Bere amak kontatzen zion, baserritik mezara oinutsik joaten zirela eta han abarkak janzen zituztela (aurreneko mezara ahizpa bat joaten zen eta ondorengora, bestea). Jateko gutxi izan arren, bisitan etortzen zirenei magrak ematen zizkieten. Esne, zerri eta aretxeren bat saltzen zituzten diru piska bat ateratzeko. Jateko eltzaria (ilar gorria), opil eta esnea izaten zuten batez ere. Oilaskoak saltzen zituzten eta arrautzak mandatuak egiteko (trukatzeko) erabiltzen zituzten: azukre eta olioak lortzeko, batik bat. Aitaren ardoa giltzapean gordetzen zuten. Gaztaina biltzen zen, etxera keretan eramaten zuten eta iratzekin tapatzen zituzten. Gaueko menua: gaztaina, esne eta opila. Garbantzoak bestetan jaten zituzten

299. Haurtzaroko bestak (IGA-016/003)

Garbantzuak eta oilasko errea bestetan besterik ez zuten jaten. Postre berezia ere izaten zuten: arroz-esnea galletekin. Kafea, anis eta Cognaca kanpokoentzat izaten zen. Irundik etortzen ziren osaba-izebak hogeitaz pezetak ematen zizkieten eta korrika joaten ziren herrira, "tiropitxonean" aritzeko.

300. Gaztain biltzea. Esnea eta opila (IGA-016/004)

Irailan edo urrian gaztaina biltzera joaten ziren. Aita goiti joaten zen eta haga luze batekin gaztainak botatzen zituen. Besteek mako batzuekin sare hangitara batera biltzen zituzten eta handik eskortara; iratzeekin ezaltzen zuten azkenik. Gero, behar zenean, gurdiaekin joaten ziren eta morkotsak

kargatzen zituzten. Danbolinean erreta edo egosita jaten zituzten. Askotan gaztainak xehetu eta esne eta opilarekin nahasten zituzten. Opil artean urdaia edo gazta sartzen zuten. Baserrian behi-gazta egiten zuten.

301. Lesakako merkatua. Salerosketak (IGA-016/006)

Ortzegunetan Lesakan merkatua izaten zen eta hara joaten ziren gurasoak haragia erostera. Zaldi haragia ekartzen zuten. Esnea saltzen zuten: berrogei litro, 400 pezeta inguru; 150 kiloko aretxea salduta, 6000 pezeta lortzen zituzten. Oilaskoak ere saltzen zituzten

302. Dendak (IGA-016/007)

Azukrea zakutan zeukaten eta (estrazia) zatar-paperetan banatzen zuten. Kafea poltsetan eta ardoa barriketan ekartzen zuten eta tutu malgu batekin betetzen zituzten botilak

303. Aitari janari hoberena (IGA-016/008)

Amak aitari janari hoberena ematen zion lan gehien egiten zuelakoan. Haurrak behi aitzinean ibiltzen ziren batzuetan.

304. Zizareak (IGA-016/009)

Jendeak zizare anitz izaten zituen lehen; horren kontra esnea hartzen zen. Haurrei "Lombripur" ematen zieten, oso txarra zen eta hartzen zuten egunean ez ziren eskolara joaten.

305. Ez zen komunik, ez dutxarik (IGA-016/010)

Ez zen komunik, ez dutxarik. Ur-hostoekin garbitzen zuten ipurdia

306. Irratia (IGA-016/011)

Irrati txiki bat zuten baserrian. "Baxerri" programa entzuten zuten arratsaldero zazpitan.

307. Herrien fama eta errateak (IGA-016/012)

"Igantzi, Madrid chiquito" erraten da, erdaraz egiten omen delako. Arantzarrek "harrikalari" fama zuten: Arantzako bestetara joaten zirenean, harrika hartzen zituzten

308. Euskara (IGA-016/013)

Lesaka eta Igantziko euskara antzekoa da. Etxalarkoa, berriz, diferentea da

309. Pitarra (IGA-016/014)

Pitarra nola egiten zuten azaltzen du: sagarrak azpil batean xehatu, urarekin nahastu, eta irakiten hasten denean, tapatu. Hogeia bat egun ondoren probatzen zuten. Botiltzen zuten. Bizpahiru barrika egiten zituzten urtero. Gaztain erreak jatzen zituztenean edaten zuten.

310. Ameriketara joan aurreko lana (IGA-016/016)

Ameriketara joan aitzinetik, kanpoan obretan aritu zen lanean hiru urtez. 3250 pezeta irabazten zituen.

311. Gaztaroa. Igande arratsaldeak . Neskekin harremana (IGA-016/017)

Gaztetan, igande arratsaldetan, bezperetara joaten ziren, ondoren pilota partida jokatzen zuten plazan, gero ostatura eta, azkenik, akordeoia paratzen zuten arkupetan neskekin dantzatzeko. Neska etxera laguntzen zuten eta, gero, herri-etxera afaltzera joaten ziren (16 pezeta kostatzen zuen: ardo botila, ogi-koskor bat eta gisatua edo txipiroiak). Hamabietarako etxera joaten ziren. Neskak, berriz, bezperetatik atera ondoren pasieran ibiltzen ziren, dantzaldia arte; ilun-ezkiak jotzen zuenean, etxera joan behar zuten. Neska eta mutilek eskutik helduta ibili zezaketen bakarrik. "Lehen motorra edo autoa zuenak, andregaia izaten zuen; besteek, ez". Emakumea nola ezagutu zuen azaltzen du.

312. Apostu gutxi (IGA-016/018)

Igantzin apostu gutxi egiten zituzten. Ez zen diru handia jokatzen.

313. Beldurrak eta sinesmenak (IGA-016/020)

Haur zela, "gau-beleei" beldur zien. Lehenagoko zaharrek sorginak izaten zirela erraten zuten. Oilarrak gauez kukurruku egiten zuenean, gatza sutara botatzen zuten: "ona barrena, gaiztua kanpora" erraten zuten.

314. Sinesmena. Arimari leihua ireki (IGA-016/021)

Gurasoek erraten zioten, norbait hiltzen zenean, ohe gainean uzten zutela gorpua eta gauean leihua irekita uzten zela arima zerura joateko.

315. Morroi (IGA-017/001)

Hamabi urte zituela morroi izan zen bi hilabetez. Ardiak biltzen eta jezten eta behien aitzinean ibiltzen zen. Etxe horretan izandako bi hilabeteetan galtza berri pare bat eta hogeituro besterik ez zizkioten eman. 17 urtetan, berriz, Frantziara joan zen; han gogorragoa izan zen: goizeko 5etan jaikitzen zen behiak jezteko, gero arbia ateratzen eta bazka segarekin moztzen aritzen zen; behi umatu berriak zaindu behar zituen ere eta, arratsean, berriz jetzi behar zituen (egunean hirutan). Urte bat egon zen han eta, baserrira itzuli zenean, soldaduska egitera joan behar izan zuen.

316. Frantziara mendira lanera (IGA-017/002)

Soldaduska egin ondoren, Frantziara mendira lanera joan zen. Saint-Gaudenseko paper-fabrikako arduradun bat etortzen zen mutilen bila. Ekipoak egiten zituzten; berean sei bildu ziren (bere anaia eta lengusu bat barne). Andorrako muga inguruan izan ziren lanean. Elur anitz izaten zen.

317. Mendiko lana 1 (IGA-017/004)

Arrantxero (sukaldari) lana egin zuen denboraldi batez. Kafea hartuta guztiak mendira joaten ziren eta berak jatekoa prestatzen zuen. Garbantzoak edo ilarrak mendian egindako suan egosten zituen eta, bitartean, egurra pilatzen edo beste lanak egiten aritzen zen. Bi lagun motosierrarekin egurra botatzen aritzen ziren eta besteak pilak egiten. Zazpi edo zortzi hilabete egoten ziren mendian; martxoan joan eta Santa Luzia aldera itzultzen ziren.

318. Mendiko lana 2 (IGA-017/005)

Igande arratsaldea bakarrik izaten zuten zuten libre eta arropa garbitzeko aprobetxatzen zuten. Argitzen zuenean jaikitzen ziren, bostak aldera askotan, kafea eta ogi koxkor bat hartuta joaten ziren lanera. Gero gosaria hartzen zuten: arrautza fijituak eta xingarra. Gero baba edo ilarra eguerdian; azpil beretik jaten zuten bakoitzak bere goilararekin. Igandetan txabolan bazkaltzen zuten. Igande arratsaldetan, siesta egin, kartetan aritu eta arropa garbitzen zuten. Batzuetan, inguruko baserritarrei (zaharrak edota seme-alabarik gabe) laguntzen zieten belarrak egiten eta ondoren afaria ematen zieten. Udan bakarrik egiten zuten siesta, baina 15 edo 16 ordu egiten zuten lan.

319. Lan gogorra (IGA-017/007)

Lana oso gogorra zen mendian; istripuak izaten ziren eta hildakoren bat ere izaten zen. Behin ez zuen abisua entzun eta oso hurbil erori zitzaion arbola bat. Norbaitek mina hartzen zuenean, arduradunari deitzen zioten eta jeeparekin eramaten zuen eria. Segurua bazuen.

320. Txabola eta arropa (IGA-017/008)

Behin etxe abandonatu batean izan ziren oso ongi. Bestela, taula zahar batzuekin, txaparekin edota olanarekin egiten zuten txabola. Lo egiteko lekuan, berriz, ainarra paratzen zuten lurrean eta gero manta pare bat erabiltzen zituzten (bat azpian eta bestea gainean). Lanabesak eta maletak ere gordetzen zituzten txabola barnean. Euria egiten zuenean traje-zirak eta kapela handiak erabiltzen zituzten, baita bizkar-larrua ere. Oinetan abarkak ibiltzen zituzten (bortzegi gutxi).

321. Ameriketara joan zen (IGA-017/010)

Elizondoko Ana Mari Marin aritzen zen Ameriketara joateko paperak egiten. Bilbon azterketa egin behar izan zuen, ardiei buruzko hainbat galdera erraz egin zizkioten (ardien hortzei, umatzeari eta esneari buruzkoak, besteak beste). Bidaian bi maleta ttiki besterik ez zituen eraman eta hango helbidea edota nagusiaren izena idatzita zuen etiketa bat paratu zioten arropa gainean.

322. Ameriketara bidaia (IGA-017/012)

Bilbotik trenez joan zen Madrilera (gau osoa eman zuen), handik hegazkinez New Yorkera (gaur egun bezala gutxi gorabehera, sei edo zazpi ordu) eta handik bertze hegazkina hartu behar izan zuen (hiru ordu). Bederatzi orduko diferentzia zegoen (bi erloju eraman zituen jakiteko). Iritsi zenean nagusia esperoan zuen; bere etxean lo egin zuen eta biharamunean mendira eraman zuen arditan lan egitera. Santanderino batek erakutsi zion bi egunetan zer lan egin behar zuen eta nondik nora eraman behar zituen ardiak.

323. Artzain lana (IGA-017/013)

Ardiak goizean ateratzen ziren eta gero ura eman behar zitzaien. Roulotte batean bizi zen: mahaia, hozkailua eta argia (gas-botila handi batekin) bazituen. Hamabostero-edo, nagusiak tokiz aldatzen zion roulottea. Nagusiak kamioia uzten zion ardientzako ura ekartzeko. Sukaldeak ere gas-botila horretatik hartzen zuen energia. Bi zakur zituen; anitz laguntzen zuten ardiak biltzen-eta. Euskaraz egiten zien. Beti bakarrik zegoen, nagusia asteen bitan joaten zen ogia eramatera. Ardiak umatzen zirela, nagusia laguntzera joaten zitzaion.

324. Bakardadea (IGA-017/014)

Beti bakarrik zegoen, baina, noizbait beste artzain baten txabola ikusten bazuen, kamioia hartu eta berarekin joaten zen arratsean, behin ardiak bilduta. Han ez zen herrira joaterik

325. Janaria (IGA-017/015)

Ameriketan artzain zela, batez ere ardikia jaten zuen. Kontserba anitz (sardin-latak eta abar) eta oilaskoren bat ere jaten zituen. Oihanean baino hobe jaten zuen han. Fruta ere eramaten zion nagusiak. Beste artzainei eramaten zizkieten jakiak hobeak zirela ikusita, nagusiari eskaera egin zion.

326. Soldata (IGA-017/017)

Sei hilabetetik ordaintzen zieten jornala. Ameriketan hemen baino gehiago irabazten zuten: 17.000 pezeta (220 dolar) han eta Lesakako fabrian, berriz, 5.000 pezeta.

327. Kontratua eta agiriak (IGA-017/018)

Nagusiak ordaintzen omen zuen bidaia, baina kontratua irauten zuen denbora guztia bete behar zenuen. Artzain joandakoek ezin zuten beste lanik egin, ez baitzuten baimen-agiririk. Batzuek ezkondu ziren agiriak lortzeko eta herritako beste lanetan aritzeko (besteak beste, lorategi eta esnetegietan). Artzain joaten zirenen kontratua hiru urte eta erdirako zen eta, amaitzean, etxera itzuli ala beste hiru urtez luzatzeko aukera zuten. Bera etxera itzuli zen eta Lesakako fabrian hasi zen lanean.

328. Artzainen besta (IGA-017/019)

Artzainen bestara behin joan zen Ameriketan zela. Artzain anitz biltzen ziren eta haragi errea egiten zuten; bakeroen (behizainen) nagusiek aretxe bana eramaten zuten eta artzainen nagusiek, berriz, bildots bana. Musika ere izaten zen. Gehienak euskaldunak ziren, "euskal besta zen hura".

329. Koioleak eta azeri txikiak (IGA-017/020)

Desertuan koioleak zeuden; zakurrak horretarako balio zuten gehiena. Hala ere, noizbehinka ezbeharrak izaten ziren. Koioleak bi bildots hil zizkionean, nagusiak jeeparekin haren bila joan zen eta azkenean harrapatu zuen. Azeri txiki batzuk ere baziren; egun batean, ur eske joan zenean, bat harrapatu zuen eta roulottearen kanpoaldean kateatu zuen. Nagusiak ikusi zuenean zeharo harritu zen. Egun batzuk ondoren, beste artzain batekin gasolina bota eta su eman zioten; baina, sute txiki bat sortu zuten.

330. Ingelesa (IGA-017/021)

Berak ez zuen ingelesik ikasi, nagusia eta beste artzainak euskaldunak baitziren.

331. Nagusiari deitzeko aukera (IGA-017/022)

Ezbeharren bat gertatzen bazen, aukera zuen kilometro gutxira zegoen gasolindegira joateko eta handik nagusiari deitzeko (artzain batek epilepsia-krisiak izaten zituela-eta joan zen behin abisatzera). Haginetako mina izan zuenean, eskumuturrean baratxuri lehertua jarri zuen eta ahoan enplastuak.

332. Tabakoa eta ardoa dohainik (IGA-017/023)

Artzainei tabakoa eta ardoa dohainik ematen zieten.

333. Kontrabandoa 1 (IGA-017/025)

Igantzina guztiek kontrabandoa egiten zuten. Bolada batean puntillak (parpailak) ekartzen zituzten; beste batean, botikak egiteko hauts zuria zuten latak. Esnagailuak ere eramaten zituzten; behin batek kolperen bat eman omen zion paketeari eta jotzen hasi zen. Nylonezko bobinak eta errodamenduak, ere ekartzen zituzten. Paketeak plastifikatuta zeuden; 38 kiloko paketeak izaten ziren eta bost ordu inguruko bidean eraman behar zuten soinean. Batzuk besteengandik bereizirik joaten ziren, ihes egiteko aukera izateko.

334. Kontrabandoa 2 (IGA-017/026)

Etxe batean, maindire beltz bat eskegitzen zutenean, bazekiten gau horretan kontrabandoa izanen zela. Batzuetan, argituta ibiltzen ziren kontrabandoan. Guardia zibilekin izandako istorioak kontatzen ditu.

335. Kontrabandoa 3. Soldaduska (IGA-018/002)

Lan gogorra zen kontrabandoarena, sos pixka bat lortzeko egin behar zutena. Soldaduskan (Iruñean) gastatu zuen kontrabandoko dirua: ogitartekoren bat hartzeko eta txikiteoan ibiltzeko

336. Kontrabandoa 4 (IGA-018/004)

Kontrabandoko seinalei buruz mintzatzen da. Argi bat piztu eta itzali egiten zuten zenbait informazio emateko; trape beltza edo maindire zuria ere erabiltzen zituzten seinale gisa.

337. Kontrabandoa 5 (IGA-018/005)

“Eltzetzu” (guardia zibil) batzuek euskaraz bazekiten; besteak beste, Sunbilla bat. Honek tiro bat bota zion Arantzako bati.

338. Kontrabandoa 6 (IGA-018/006)

Kontrabandoko istorio bat kontatzen du: bi guardia zibilek aranztar bat harrapatzen saiatu ziren, baina, azkenean, eskapatu egin zen eta tiro eman zioten (izterrean jo zion balak). Kontrabandista gutxi harrapatu zituzten.

339. Kontrabandoa 7 (IGA-018/007)

Paketeaz gain, zaldiak ere pasatzen ziren kontrabandoan. Pertsonak ere pasatu zituzten denboraldi batean: portugesak hain zuzen. Kontrabandista bakarra joaten zen, bost portugesekin. Pena ematen zutela azaltzen du. Bere ama haietaz errukitzen zen eta ogitarteko beroak prestatzen zizkien. Emakume gazte batetaz gogoratzen da (pena handia ematen zion) hiru urteko neskarekin joaten zena; mina-zulo batean gordeta izan ziren beste lagunak esperoan. Portuges bakoitzaren argazki baten erdia eramaten zuten eta, Frantziara iristen zirenean, bertan konprobatzen zuten beste erdiarekin bat etortzen zen; orduan ordaintzen zieten. Batzuetan engainatzen zieten; adibidez, Etxalarren utzi eta jada Frantziara zirela esan, haiek herrian sartu eta, noski, harrapatzen zituzten.

340. Onddoak 1 (IGA-018/009)

Onddoak hartzeko “cuarto menguantetik, cuarto crecientera” (ilbeheratik ilgorara) tarte onena zela esaten zen. “Baina, euria eginda, igual ilargi betean ateratzen dira”; berak euriari ilargiari baino gehiago begiratzen dio. Nahiago du egun iluna, argia baino. Arbolen ondoan ateratzen dira.

341. Onddoak 2 (IGA-018/011)

Onddo bat begiratzen baduzu, gero oso gutxi handitzen da. Berak beti utzi izan du ipurdia, haziarengatik.

342. Sinesmenak eta erremedioak 1 (IGA-018/013)

Gezurrak erranda, begitxindorra eta azkazaletan orban zuriak ateratzen dira. Hainbat erremedio azaltzen ditu: hagineko minarendako, eskumuturrean baratxuria paratzen zen; Txukuna (zotina) kentzeko, susto bat ematen zen. Lehengo zaharrek erraten zutenez, baratxuri-pikor bat arbolaren zain ondoan paratzen bada, gihartzen omen du.

343. Ukendua (IGA-018/015)

Lehen olio eta lintsutsarekin egiten zen ukendu bat.

344. Txistuak eta aztunpak egin (IGA-018/016)

Txistuak eta aztunpak (tiragomak) egiten zituzten. Gaztain-egurra erabiltzen zuten.

345. Apostuak. Pertsonaia famatuak (IGA-018/018)

Apostu gutxi egiten zen. Behin egin zutena: lagun bat bizikletarekin eta bestea lasterka; lasterkariak irabazi omen zuen. Aranztarrek apostu bat egin zuten: Artikutzaraino lasterka. Rubio izeneko gizon famatuei buruz mintzatzen da. Batek apostua egin zuen eta hogeituroko billetea erre zuen (zigarroa eginda). Beste Rubio batek bere aitari bizikleta ebatsi eta Sunbillako bati saldu zion; beti eskapo bizi zen, ardiak ebatsi eta Frantziara eramaten zituen. Azkenean, Oiartzunen hil zuten guardia zibilek.

346. Sorginak (IGA-018/019)

Argatako iturrian sorginak izaten zirela erraten zieten; ura hartu eta lasterka itzultzen ziren etxera.

347. Zerriak hazi (IGA-019/001)

Zerriak etxeetan hazten ziren, etxe guztientan zerrama izaten baitzen. Etxeko bazka ematen zieten: artoa, gaztainak, patatak, arbi eta erremolatxa egosita... Kanpoan izaten ziren egun osoa: gaztainak, ezkurak, gereziak eta belarra jaten, besteak beste. Etxetik atera aurretik eta gauean, itzultzean, arto-irina ematen zieten. Lehen, gaur baino denbora gehiago behar zuten hazteko (bi urte inguru).

348. Zerria hil 1. Gosaria eta odolkiak (IGA-019/002)

Zerriak abenduan hiltzen ohi zituzten. Ilargiari begiratzen zioten: ilbeheran hiltzen zituzten, lukainak, azpiak eta abar kontserbatzeko hobe zelakoan. Bezperan tipula egin eta arroza egozten zuten. Zerria hiltzeko zerri-hiltzailea eta lau lagun behar ziren. Emakume bat odola nahasten egon behar zen.

Gero, odola iragazten zen eta arroza, tipula, gatz, perrexila eta pipermina (piperbeltza). Bitartean, zerria erre eta garbitzen zuten, baita tripak atera ere. Gosaltzeko baratxuri-zopa, zerriaren gibela, tortilla, solomoa, lukainka, konpota, kafea eta kopa hartzen zituzten. Gosaldu ondoren, zerri-hiltzailea zerria puskatzen zuen. Emakumeek hesteak iturrian garbitzen zituzten eta, gero, etxean, barreinu batean baratxuri, gatz eta ozpinarekin uretan sartzen zituzten. Odolkiak kanpoan egindako suan egosten zituzten.

349. Zerria hil 2. Bazkaria eta lukainak (IGA-019/003)

Bazkaltzeko, garbantzuak (zerriaren buztanarekin egosita), bakailua, odolki pixka bat, olilo gisatua, arroza esnearekin edo budin bat, kafea eta kopa. Arratsaldean zerria xehetzen zuten, lukainak egiteko. Adoboa nola egiten zuten azaltzen du; gatz aski zuen jakiteko arrautz bat botatzen zuten (goiti ateratzen zela). Gero haragiari botatzen zioten eta nahasten zuten. Horrekin, biharamunean, lukainak egiten zituzten. Kolorea emateko, piperhautsa erabiltzen zuten.

350. Zerria hil 3. Urdai eta urdaiazpikoak (IGA-019/004)

Urdaia eta urdaiazpikoak gazitu egiten ziren, kutxa batean. Gainean harri bat paratzen zieten. Hilabete baten buruan, gatzatik atera eta errekan garbitzen ziren. Zaku batzuetan sartuta zintzilikatzen zituzten. Hezuraren zuloa tapatzeko ogi irina eta ozpinarekin egindako masa erabiltzen zuten. Urtebete inguru itxaron behar zen jaten hasteko. Urdaia, berriz, garbitu eta idortzen zela, berehala jan zitekeen.

351. Zerria hil 4. Solomoak (IGA-019/005)

Solomoak ere adoboan paratzen ziren (azpil batean, ura, gatz eta baratxurirekin). Ia bi egun uzten ziren adoboan. Lukainekin zintzilikatzen zituzten sukaldean eta zortzi edo hamar egunetan idortzen ziren. Gero, olio eta urinean kontserbatzen zituzten.

352. Zerria hil 5. Gantxigorak (IGA-019/006)

Gantxigorak zer ziren azaltzen du. Urina urtuta, gelditzen ziren puskek xehatu eta bertze kazola batean altxatzen ziren. Tipula egin eta gantxigorrekin tortilla egiten zen. Galleta moduko zerbait ere egiten zen gantxigorrekin: nabalarekin ongi xehetzen zituzten, anis pixka bat botatzen zioten, arrautz bat eta ogi irina; opilekin bezala, masa bat egiten zuten eta edalontzi batekin galleta borobilen formak moztzen zituzten. Frijitu edo labean erretzen zituzten eta, gainetik, kanela hautsa eta azukrea botatzen zieten.

353. Zerria hil 6. Dena aprobetxatzen zen (IGA-019/007)

Zerritikan dena aprobetxatzen zen: hankak, giharreak, buztana, muturra eta abar. Muturra, hankak eta belarriak gatzan paratu, idortu eta egosi; gero irin eta arrautzan pasatu eta kazolan paratu, tomate pixka batekin.

354. Zerria hil 7. Puskak banatu (IGA-019/009)

Zerria hiltzen zen eguna oso garrantzitsua zen, besta eguna zen. Haurrek puskek banatzen zituzten etxeetan (aza hosto bat azpian eta beste bat gainean paratuta). Etxeetan sos batzuk ematen zizkieten.

355. Zerria hil 8. Anisa (IGA-019/011)

Goizean, zerri-hiltzen hasi aitzinean, anisa, kafea eta galleta batzuk hartzeko ohitura zegoen.

356. Arropa garbitu. Bokata (IGA-020/001)

Astean behin garbitzen ohi zuten arropa. Ohatzeko maindireak garbitzeko bokata egiten zuten: xaboia eman eta azpil batean ur epeletan uzten zuten biharamun arte; berriz ere xaboitu fregaderan, ongi marruskatu eta barrika gisako batean sartzen zituzten. Gainean "hautsakoa" (zaku bat) paratzen zen hautsarekin eta erramu hosto batekin (usain ona ematen zuen). Gero gainetik ur irakina botatzen zen behin eta berriz. Egosita zegoenena, saski batean paratzen zituzten maindireak eta errekarera eramaten. Arropa zuritzeko, "anilla" (azuletea) oihal batean paratzen zuten eta uretan sartu. Arropa beltza (laneko arropak), berriz, errekan garbitzen zen; aurretik azpil batean xaboiarekin beratzen uzten zuten eta gero ongi marruskatu. Neguan izugarritzko oinazea izaten zuten eskuetan. Gero labaderoa egin zuten, "adelanto handia izan zen".

357. Ura ekarri. Gorputza garbitu (IGA-020/002)

Etxean ez zuten urik. Edateko ura bi baldetan ekartzen zuten bizkarrean jarritako makil batetik zintzilik. Gorputza bakan garbitzen zuten; harraskan palangana (konketa, garbiontzi) bat paratzen zuten eta berotutako ur epela botatzen zuten. Lagarto izeneko xaboiarekin garbitzen zuten gorputza eta ilea ere. Barreinu (azpil) batean hankak garbitzen zituzten, bata bestearen atzean.

358. Haur-oihalak (IGA-020/003)

Haur-oihalak errekarera eramaten zituzten garbitzeko eta, gero, sutondoan paratzen zituzten azkar idortzeko. Kotoizkoak ziren eta bi kordekin lotzen ziren

359. Etxea garbitu (IGA-020/004)

Lehenago, eskoba eta zepilloa (eskuila) erabiltzen zituzten etxea garbitzeko. Logeletan eta salan argizaria ematen zuten makil batekin eta, gero, eskuilarekin distira ateratzen; sukaldean, berriz, baldosak trapu batekin garbitzen zituzten, belauniko jarrita.

360. Logelak. Ohatzeak (IGA-020/006)

Logeletan ohatzea, armairua eta gau-mahaia zeuden. Ilezko koltxoiak nola egiten ziren azaltzen du: ardien ilea garbitu, idortu eta makilarekin jo. Urtero, abuztuan, koltxoiak garbitu eta harrotzen zituzten. Koltxoiaren azpian lastairra jartzen zuten, "txuritzez" (arto zurikinez) betea.

361. Erremedioak 1. Karitxak (IGA-020/008)

Karitxak kentzeko erremedio anitz daude: patata, tipula, baratxuri eta belar esnedun bat. Tipularekin zer egin behar da azaltzen du: ilbehera delarik, tipula ebaki eta ilargiari begira jarrita, karitxak igurtzi; gero, bi zatiak batu eta gibelera bota, begiratu gabe. San Juan Xarrera ere joaten zen jendea karitxak kentzeko eta beste anitz gauzekin. Kanpoko jende anitz etortzen zen. Hankak garbitu, trapu edota toallekin idortu eta kanpoan hedatzen zituzten. Serora batek bildu eta erretzen zituen. Gero errezatu behar zuten eta, etxera eramandako urarekin (hiru iturrietakoa), bederatzi egunez garbitu berriz. Behiek errapetan karitxak izaten ohi zituzten eta, kentzeko, tomate lata batean apu bat sartzen zuten eta itxi. Behorrekin ere berdin egiten zuten;

anekdota bat kontatzen du: al baitariak karitxa handia kendu zion behorrari, baina berriz hazi zitzaion; apuarena egin zuen bere aitak eta kentzeaz gain, ez zitzaion berriz atera.

362. Erremedioak 2. Ebakiak eta erredurak (IGA-020/009)

Ukendua egiteko erabiltzen zuten: lintsusa, elorri-zuria, gantza, olioia eta argizaria. Lintsusa nolakoa den azaltzen du. Ebaki-belarra ere ebakiak sendatzeko erabiltzen zuten. Ebakien zikina ateratzeko eta erredurentzako erabiltzen ziren.

363. Erremedioak 3. Arantzak ateratzeko (IGA-020/010)

Arantzak-eta ateratzeko, zerri ordotsen behazuna erabiltzen zuten. Zerria hiltzen zelarik, behazuna zintzilikatzen zuten, idortzeko.

364. Erremedioak 4. Enplastuak (IGA-020/011)

Basmo-belarra eta arrautzaren zuringoarekin tortilla egin eta enplastu gisa jartzen zuten. Handitsuen (pikorren) zornea ateratzeko erabiltzen zuten; baita tipula ere.

365. Erremedioak 5. Tripako minarentzat (IGA-021/001)

Tripako minarentzat kamamila hartzen zuten. Abuztuan biltzen zuten. Aziendari ere ematen zioten kamamila. Esate baterako, behiak haizatzen zirela, kamamila egosita eta bikarbonato hauts pixka bat ematen zieten.

366. Erremedioak 6. Katarroa (IGA-021/002)

Katarroarentzat ezta edota aspirina hartzen zuten. Ezta esnearekin nahasita edo ura eta limoi zukuarekin. Kanelarekin egositako ardoa ere hartzen ohi zuten. Inor ez zen medikuarengana joaten katarro batengatik.

367. Erremedioak 7. Belarriko mina (IGA-021/003)

Belarriko minarentzat, arto irina oihal batean sartu eta berotu egiten zuten.

368. Erremedioak 8. Espartinen zola berotu (IGA-021/004)

Katarro fuertea eta bularreko mina izanik, espartinen zola berotu eta bularraren gainean paratzen zen. "Airea" jartzen zela ere, adibidez lepoa ezin mugituz, espartinen zola beroa erabiltzen zuten.

369. Erremedioak 9. Mitterriak (IGA-021/006)

"Mitterriak" (ezpainetako pikorrak) ateratzen zirela, barruko ura ateratzeko zanpatzen zituzten eta, idortzen zirela, azala kendu.

370. Erremedioak 10. Mingaineko pikorrak (IGA-021/007)

Mingaineko pikorrak laratzan (pazea zintzilikatzeko katean) igurtzen zituztela aditu du.

371. Erremedioak 11. Ertulak (IGA-021/008)

Ertula behatz puntetako mina zen. Gatza eta ur berotan sartu eta ateratzen zuten behatza. Gero ukendu pixka bat paratu eta zornea ateratzen zitzaion.

372. Erremedioak 12. Aziendari odola mozteko (IGA-021/009)

Bildotsari buztana mozten ziotenean, amonsarea (armiarma-sarea) paratzen zioten, odola mozteko. Behiei ere adarrak mozten zizkietenean amonsarea jartzen zieten

373. Erremedioak 13. Zingirioa (IGA-021/010)

Behiei esnearekin daudelarik, errapeak gogor-gogorrak jartzen zaizkie eta ez zaie ia esnea ateratzen; gaitz horri zingirioa erraten diote. Hortarako, balde batean ur irakina paratzen zuten eta Lagarto xaboia bota; ateratzen zen aparrarekin errapeak igutzen zituzten. Gero oihal batekin idortu eta zerri-gantzarekin ongi igurtzi

374. Petrikiloa (IGA-021/012)

Bazen emakume kurandera (petrikilo) bat, erremedio anitz zituena. Jende anitz kanpotik etortzen zen beregana.

375. Eguraldia ezagutzeko moduak. Animaliak (IGA-021/013)

Eguraldia ezagutzeko modu anitz badira. Katuak joka badabiltza, haizegoa edota euria dator. Ardiek fuerte joare joka, bi egunen barrenean euria egingen du; eguraldi txarra datorrela igartzen dute eta menditik etxera itzultzen dira ardiak. Armiarma beltzak (hanka handikoak) ateratzen direla, euria dator. Zizareekin berdin gertatzen da.

376. Eguraldiaren inguruko errateak (IGA-021/014)

Badira eguraldiaren inguruko errateak: "Goiz gorri, arrats euri", "Arrats gorri, goiz zuri"; "Erramu eguneko haizea, 40 eguneko haizea"

377. Eguraldia ezagutzeko moduak. Haurrak eta hezurak (IGA-021/016)

Haurrak nahasiak dabiltzanean, eguraldi aldaketa dator. Hezurretan ere nabaritzen da eguraldi aldaketa, min egiten dutenean euria edo hegoaizea dator

378. Ilargiari begiratu (IGA-021/017)

Lehen gauza aniztarako begiratzen zitzaion ilargiari: bertzeak bertze, zerrria hiltzeko (ilbeheran), haziak ereiteko (ilbeheran), arbolak botatzeko (buztarriak egiteko egurra ilbeheran bota behar zen, adibidez) eta aziendari arra emateko.

379. Ilunabarrean gaztainak erre eta artoa zuritu 1 (IGA-021/018)

Arratsetan sutondoan biltzen ziren (gurasoak, aitatxi, osaba eta bost senideok). Gaztainak xartanan erretzen zituzten. Gaztain zurituekin "Xaldun kortin" jokoa egiten zuten: batek eskuetan zenbat gaztain zituen asmatzen bazenuen, gaztainak zuretzako. Biharamunean eskolara eramateko gaztainak ere zuritzen zituzten eta zaku txiki batzuetan sartu. Orain gaztainak agudoago galtzen dira, lehen negu osorako izaten zituzten. Artaxuritzen (artoa zuritzen) ere aritzen ziren ilunabarretan, sutondoan.

380. Afaria. Etxeko jakiak. Fruta (IGA-021/019)

Zer afaltzen zuten azaltzen du: lehenbiziko eltzaria eta berdura, gazta eta "dultzia"; gaztaina errea sagardoarekin eta, ondoren, esnea. Fruta izaten zuten: gereziak, aranak, sagarrak, udareak, melokotoiak eta albertxikoak besteak beste.

381. Ilunabarrean gaztainak erre eta artoa zuritu 2 (IGA-021/020)

Sutondoan kontu kontari eta haur txikiekin jostatzen aritzen ziren; aitatxik eta aitak bertsoak botatzen zituzten.

382. Laborantza eta abeltzaintza lanak 1 (IGA-021/021)

Urte osoan izaten zen labrantzako lana. Urteko lehenbiziko lana udaberrian izaten zen, martxoan patata egiten zuten. Gero, lurra prestatzen zuten (irauli behiekin, xehatu txarrantxarekin eta area pasatu) maiatzean artoa ereiteko. Ondoren bakandu behar zen, eskuz "orgilla" jo, "bortz hortza" behiari edo astoari uztarri batekin lotu eta pasatu, gero dena jorratu behar zen. Belarrak segarekin egiten ziren; moztu ondoren zabaldu behar ziren idortzeko eta buelta eman berriz. Belar-metak egiten zituzten eta goero goitira eramaten zituzten. Belarra ez bustitzeko, metaren gainean iratze eta zaku bat paratzen zituzten, makilekin eutsia. Iratzea segarekin mozten zuten eta adar batzuekin arrastatzen zituzten meta zegoen tokiraino. Metaren gainean zohia (aitzurrarekin moztutako belar eta lur zati biribil bat) paratzen zuten, iratzea ez bustitzeko eta haizeak ez eramateko.

383. Laborantza eta abeltzaintza lanak 2 (IGA-022/001)

Zortzi egunetikan behiei azpiak aldatzen zitzaizkien eta metatik iratzeak ekartzen zituzten. Udan belagira ateratzen zituzten behiakk, beraz bazka gutxiago prestatu behar zieten. Lurra beheiti joaten da eta, beraz, hartu eta karroan gora eraman behar zuten, han botatzeko. Oiloak egun osoan kanpoan egoten ziren, gero, etxean, artoa eta ura paratzen zieten. Umatu bitartean, zerramari begiratu behar zioten, zerrikumeak ez hausikitzeko edo zapaltzeko. Behiei ere begiratu behar zieten, aratxea erditzen laguntzeko. Behiari eta aratxeari ardoa ematen zieten bizkortzeko.

384. Gaztaina eta intxaur biltzera (IGA-022/002)

Intxaur eta gaztain biltzen aritzen ziren. Anaiak edo aitak haga luze batzuekin jo eta besteek lurrean matxardekin biltzen zituzten. Gaztaina piloa izaten zen lehen.

385. Baratzeke lanak. Emakumeen lanak (IGA-022/003)

Baratzean beti bazen egin beharreko lanaren bat; gehienetan emakumeen lana izaten zen: bertzeak bertze, gorotza ekarri, buelta eman lurrari, landareak paratu, jorratu eta erein. Zer ereiten zuten: patatak, ilarrak, lekak, porruak, azak, tomateak, piperrak etab. Tometeak, adibidez, lan handia ematen zuten. Nekazal etxeetan, emakumeek lan handia egiten zuten: kanpoan eta barruan. Lehen, gizonak ez zuten etxean deus egiten.

386. Arre-arre mandoko (IGA-022/005)

Haur txikien kanta eta jolasa: "Arre-arre mandoko, bihar Iruñerako, etzi Tolosarako, handik zer ekarriko, zapata ta gerriko..."

387. Jolasak. Kina, partxisa eta kartak (IGA-022/006)

Kina egungo bingoaren antzeko jolasa zen. Partxisean eta zazpi t'erdian ere jolasten ziren

388. Igande arratsaldeak. Neskak eta mutilak. Harremanak (IGA-022/007)

Igande arratsaldetan, neskak koxkorra zela herrira joaten zen; besperetara joan ondoren, bueltara ibiltzen zen beste neskekin. Ez ziren ostatura joaten. Herrira espartin, zapatilla edo abarkekin etortzen ziren eta, sarreran, poltsa batean ekarritako zapatak jartzen zituzten. Mutilak ostatuan izaten ziren. Ilun-ekzila jotzen zuenean, neskak etxera itzuli behar zuten eta mutilek etxera laguntzeko eskatzen zieten ("ligatzeko" modua zen orduan).

389. Belardiak eta landak babesteko (IGA-022/008)

San Juan bezperan belardiak eta landak bedeinkatzen ziren. Aitak hainbat ziri prestatzen zituen eta elor-zuri, erramu eta lintsusa sartzen zien tartean. Guztiak sare batean sartu eta botil batean ur-bedeinkatu pixka bat eramaten zuten. Belardi eta landa bakoitzean ziri bat paratu eta ur tanta batzuk botatzen zituzten.

390. Etxeak babesteko (IGA-022/010)

Etxean, atearen gainean ziria (elor-zuri, erramu eta intsusarekin) paratzen zuten ere, landa eta belagietan bezala. Aurreko urtekoa kentzen zuten lehenago; izan ere, urte osoan uzten zuten hor. Tximistak zirelarik, kandela pizten zuten eta erramu adaxka bedeinkatua sutara bota.

391. Erramu, kandela, ur eta su bedeinkatua (IGA-022/011)

Erramu egunean, erramua bedeinkatzen zen; Kandelaria egunean, kandelak eta, Bazkotan, sua eta ura. Hoiek guztiak etxera eramaten eta urte osoan zehar izaten zituzten.

392. Oliadura (IGA-022/013)

Hilzorian zegoenari apezak oliadura ematen zion. Monagilloarekin (eliz mutilarekin) joaten zen apeza oinez, gaixoaren etxera; eliz mutilak farol bat eta txintzarri bat eramaten zituen; apezak eskuetan Komunioa eramaten zuten eta oihal zuri bat buruan. Bidean topatzen bazenituen, belauniko jarri behar zenuen, pasatu bitartean. Gaixoaren etxean, apeza joan orduko, mahai bat oihal zuri batekin ezaltzen zuten; gainean bi kandelero (zutargi), gurutze bat eta ur bedeinkatua paratzen zituzten. Apezak errezatzen zuen, komunioa eman eta ur bedeinkatuarekin zeinatzten zuen gaixoa. Beraz, oso garrantzitsua zen etxean ur bedeinkatua izatea beti.

393. San Blas eta San Anton (IGA-022/015)

San Blas egunean, jendearentzat artoa eta beste jaki batzuk bedeinkatzen ziren eta, San Anton egunean, berriz, aziendarentzat. San Antonen ezin omen zen azienda lotu. San Blas egunean bedeinkatzen zena orduan jaten zen, ez zen altxatzen, eta zintzurreko minik ez izateko jaten zen.

394. Pilotan aritzen zen (IGA-023/001)

Bidasoa ingurutan pilotan anitz aritzen zen; Iruñeko txapelketaren batean ere izan zen. Hamar duro ematen zizkioten partida bakoitzeko, ordurako anitz zen.

Igantzin, Sanmigeletan Arantzako bikote batekin jokatu zuten; partida 25 tantora paratu zuten eta beraiek irabazi (22ra jokatu izan balute, berriz, galdu izanen lukete). Arantzakoak haien kontra hasi ziren eta beste partida bat antolatu zuten Beran (leku neutrala). Galtzen hasi ziren, baina azkenean irabazi zuten. Bere lagun batek diru anitz irabazi zuen apustua eginda. Narbarten geldiarazi zen partida baten anekdota kontatzen du.

395. Pilota apustuak (IGA-023/002)

Pilota pardidetan diru anitz jokatzen zen, baina orduan ez zen “korredorerik”, ezta zergarik ere.

396. Esku pilota eta laxoa (IGA-023/003)

Esku pilotan aritzen ziren. Laxoa ordurako desagertua zen, bere aitaren denboran jokatzen zen. Non aritzen ziren eta botarria non zegoen azaltzen du (Argiñenea etxea jotzen zuten). Igantzikotziko frontoia 1915ean eraiki zuten.

397. Pilota. Zer jokatzen zuten (IGA-023/004)

Afaria edo bost duro jokatzen ohi zituzten, pilota partidatan. Anekdota bat kontatzen du: bere pregoi egunean, partida bat jokatu zuen (eta bost duro irabazi); ondoren, Lesakara oinez joan zen, jostundegira, emaztearen soinekoaren bila.

398. Pregoi eguna (IGA-023/006)

Pregoi egunean, elizan apezak nor ezkonduko zen eta zein egunean erraten zuen. Toberak jotzen ziren: andregaiari bertsoak kantatzen zizkioten.

399. Ez zen beste apusturik egiten (IGA-023/007)

Pilotan bakarrik egiten zituzten apustuak. Ez zen indarra, lasterka edo beste apusturik izaten.

400. Gerra 1 (IGA-023/008)

Gerrara joan zen; 19 urte zituen. Aurrenekoz, San Martzialera joan zen astoekin. Gero Bizkaian eta Kantabrian izan ziren. Ondoren, Argedasera joan ziren “han ikasi nuen tomatea eta melona jaten”. Guadalajaran ere izan ziren. Zorriak hiltzen ibiltzen ziren. Gero, Teruelera eramane zituzten; han balazo bat jaso zuen eta, erituta, Lekarozera ekarri zuten (ikastetxean ospitalea paratu baitzuten garai hartan). Berriz frontera bidali zuten, Valentziara. Gero Castellóra eta, handik, etxera ihes egin zuen, bere aurreneko semea jaio zelako. Iritsi aurreko egunean, guadia zibilak bere etxean izan ziren galdeka. Zortzi egun pasatu zituen etxean eta, gero, gerra-kontseilua egin zioten: lau urteko zigorra jarri zioten; baina Francok indultu orokor bat eman zuen.

401. Gerra 2 (IGA-023/009)

Frontean egotea zer zen azaltzen du. Artilleria atzerago izaten zen, baina, infanteria, aitzinean jartzen zen eta oso arriskutsua zen. Franco frontera joan zen, bera han zela. Orduan erabilitako gerra-taktikei buruz mintzatzen da. Jende anitz hil zen Ebroko eta Teruelgo frontetan. Kataluniatik Toledora joan ziren eta, han zela, etxera itzultzeko baimena eman zioten; gerra amaitu zen egunean iritsi zen baserrira.

402. Gerra 3 (IGA-023/010)

Fronteko bizitzari buruz mintzatzen da: zorriak, janaria eta abar. Preso hartutakoekin zer gertatzen zen (bat hil zutela erraten du).

403. Gerra 4. Igantzi (IGA-024/001)

Fusilamenduak atzeguardian izaten ziren, ez frontean. Igantzin ez zuten inor hil gerra denboran (bakarren bat kartzelan izan zen, hala ere). Igantziko medikua (berez sunbildarra) nazionalista zen eta boluntario joan zen gerrara (anbulantzien buruzagia izan zen). Igantziko gazte gehienak gerrara joan ziren. Bartzelonara remonten eta pilotan jokatzera joan ziren bik, Frantziara ihes egin zuten handik. Gerran hil eta eritu ziren Igantziko gazteak aipatzen ditu. Kanoikada batek 80 soldadu hil zituen; bera joan zen erituak laguntzera eta Igantziko bat atera zuen. "Terriblea izan zen; egiten zara haretara, baina kostata...badira kasu batzuk hagitx kriminalak"

404. Gerra 5. Kanoiaren anekdota Igantzin (IGA-024/002)

Igantzin, gerra denboran, kanoi bat jarri zuten soldaduek. Anekdota bat kontatzen du.

405. Makiak (IGA-024/004)

Makiak Frantziatik engainatuak etorritakoak omen ziren. Ez zuten laguntzarik jaso eta hemen galdu ziren. Soldaduekin borrokatzen ziren. Hildako bi maki (ustez Eibarkoak) ehortzita daude Igantziko hilerrian.

406. Salaketak (IGA-024/005)

Igantzin ez zen arazo handirik izan gerran; ez zuten inor fusilatu. Dena dela, batzuek egoera aprobetxatzen zuten jendea salatzeke. Teniente batek Berako errepublikar bat salatu zuen, ostatuan gertatutako anekdota batengatik: tenientea emakume batekin zegoen eta beratarrak gela batean sartzeko eta nahi zutena egiteko erran zion; koronelak eskaintza gaizki hartu zuen eta salatu. Berara preso eramane zuten, baina Berako alkateak libre utzi zuen.

407. Errazionamendua. Goserik ez (IGA-024/006)

Janari gutxi eta kontrolatuta zegoen. Errate baterako, ez zen tabakorik eta jendeak osin edota patata-hostoak erretzen zituen. Dena dela, ez zen goserik pasa, esnea, zerria, ilarra, gaztaina eta artoa baitziren. Gustuko janik, berriz, ez: azukrea, olio eta ogi zuria, adibidez, ez zeuden. Gaztaina anitz biltzen zituzten. Errekisarik izan zenik (konfiskatzerik) ez du gogoratzen.

408. Bizkar lana edo gaueko lana 1 (IGA-024/007)

Anitzetan ez zekiten zer zeramaten bizkarrean. Bertzeak bertze, iratzargailuak, errodamenduak eta urrezko haria eramane ziren. Igantzin bi soka ziren, bi koadrila; bakoitzak alde batetik ibiltzen zen. Sosa ateratzeko aukera bakarra zen kontrabandoa.

409. Bizkar lana edo gaueko lana 2 (IGA-024/009)

Bertzeak bertze, errodamenduak kontrabandoan pasatzen zituzten, baina asko pisatzen zuten eta hurbil samar kargatzen zituzten kamioietan. Tiroketa handia izan zen behin Etxelandan: bera lehenbizikoa zihoan, bakarrik, paketearekin, baina guardiek pakete gehiago harrapatu nahi zituzten eta bera pasatzen utzi zuten; gero hasi ziren tiroka. Etxalarko Bentako bizkarrean bi

borda zeuden; bi koarilak elkarrekin joan ziren bidean goiti. Bordetan guardia zibilak zeuden eta denak ihes egin zuten, paketeak botata. Berea koadrilakoak geroago itzuli ziren paketeak hartzera, baina, beste koadrilakoak, biharamunean joan eta jada ez zeuden paketeak.

410. Bizkar lana edo gaueko lana 3 (IGA-024/010)

Pakete garraioan, kontrabandoan, 50 duro jasotzen zituzten; orduan diru anitz zen. Ia denak ibili ziren kontrabandoan.

411. Bizkar lana edo gaueko lana 4 (IGA-024/011)

Errodamenduak eramatea zailena zen (pakete txikia, pisu handia); urrezko hariak, berriz, gutxi pisatzen zuen (pakete handia, pisu gutxi) eta bizkarrean errazago eramaten zen paketea. Behin, iratzargailu batzuk galdu zituzten, gainbehera handia zegoela-eta, paketeekin erori eta xehatu zirelako. Pakete guztiak berdin ordaintzen ziren.

412. Bizkar lana edo gaueko lana 5 (IGA-024/013)

Pakete bat galtzen bazuen, 2000 pezeta ordaindu behar zituen. Hondarrean pakete bi galdu zituen: egun horretan bera ez zen joan, mina zuelako, eta bere ordeaz semea joan zen. Biharamunean guardia zibilek bi pakete hartzen zituztela ikusi zuten, beraz, hirugarren bat gelditzen zen eta horren bila joan eta topatu ere egin zuten.

413. Bizkar lana edo gaueko lana 6 (IGA-025/001)

Paketeak bizkarrean suelto eramaten zituzten. Zailena Bidasoa erreka gurutzatzea zen; presatik pasatzen zuten anitzetan: kanaleko eskailerak igotzeko esku bakarra zuten libre. Beste presan, berriz, ohol estu baten gainetik pasa behar zen eta kontu handiz ibili behar zuten (askotan berak pasatzen zituen pakete guztiak). Bidasoa handitua zetorrenean, soka bati lotutako anfibio bat (plastikozko txalupa) erabiltzen zuten: soka tiraka, beste aldera eramaten zuten txalupa paketeekin. Azienda eta jende gutxi pasatu zuten. Batzuek pertsona hoiei engainiatzen zieten eta muga pasatu aurretik uzten zituzten mendian galdurik. Bere etxean jaten eman zioten bati behin, pasatu aurretik, eta lau egun geroago guardia zibilak etxera joan zitzaizkien.

414. Bizkar lana edo gaueko lana 7 (IGA-025/002)

Bortz egunetan lau bidaia egin zituen behin jarraian; hondarrerako leher eginda zegoen. Sei orduko bidaiak izaten ohi ziren. Gero, egunez lan egin behar zuten. 60ko hamarkadko azken urteetan ibili zen batez ere kontrabandoan. Hondarrean

415. Bizkar lana edo gaueko lana 8 (IGA-025/004)

Berak ez zituen inoiz guardia zibilak erosi. Anekdotak bat kontatzen du. Paketea galtzen zutenek ez zuten pagarik jasotzen eta arriskua zuenak, arduradunak, pagatu behar zuen.

416. Bizkar lana edo gaueko lana 9 (IGA-025/006)

Oso ilun zela-eta, eskutik eraman zuen behin peoi bat, paketeak pasatzen ari zirela.

417. Eltzetzuak (IGA-025/007)

Ez daki zergatik deitzen zieten eltzetzuak guardia zibilei; betidanik erraten zuten

418. Bizkar besta eta inauteak 1 (IGA-025/009)

Lesakako okinaren etxean pareta bat egiten aritu ziren. Ondoren, bizkar besta eman zien, afaria. Gero etxerako bidean, baserri batean argia zela ikusi zuten. Hurbildu ziren eta Frantziara nondik joaten zen galdetu zuten; etxeakoak, urduritu ziren, baina berehala ezagutu zituzten eta “mozkor zopa” eman zieten jateko. Handik atera eta eskera joan ziren, inauteak baitziren. Etxe bakoitzean egindakoa eta emandakoa azaltzen du. Azkenean, ostatura joan ziren eta akordeoilariari gelditzen zitzairen dirua eman zioten.

419. Inauteak 2 (IGA-025/010)

Inauteak bi egun izaten ohi ziren. Gazteak baserrietan ibiltzen ziren aurrenekoz eskean eta gero herrian. Ondoren, gizasemeri txistorra eta emakumeri galleta eta ardo goxoa ematen zieten plazan. Baziren ostatuan (herriko etxean) zortzi mozorro-jantzi: erdia kolore batez eta bertze erdia beste kolore batez (lehengo koltxoien edo lastairen gisa). Bera behin hanka makilen gainean ibili zen; arrebak galtzerditikan ezagutu zuen. Emakumeak ez ziren ateratzen.

420. Lesakako gazte batzuek egindako gaiztakeria (IGA-026/002)

Lesakarren komuneko atea ebatsi eta errebara bota zuten. Berak koadrila horretako kide guztiak, 14, salatu zituen. Atea hartu behar izan zuten eta eskutan eraman lgantzira; meza nagusitik ateratzen zen jendearen aitzinean buelta eman eta bere lekuan paratu behar izan zuten. Horretaz gain, bakoitzak 20 duroko multa ordaindu zuen.

421. Haur zireneko gaiztakeriak. Zigorrak (IGA-026/004)

Eskolatik eskapatzen ziren, astelehen, asteazken eta ortziraletan aritmetika eta gramatika izaten zutelako eta maisuak kriston jipoiak ematen zizkielako. Gaizto samarrak ziren. Beste gaiztakeriak kontatzen ditu. Eskolan maisuak, etxean aita eta elizan apezak zigortzen zioten: “beti makilen azpian”.

422. Eskola (IGA-026/006)

Eskola zaharra non zegoen azaltzen du. Mutikoak beheko pisuan eta neskak goikoan. Errepublikaren denboran pasatutakoa kontatzen du: amari bost duroko multa jarri zioten, gurutzeak kendu zituztelako eta bost emakumek kexatu zirelako. Mahaiak nolakoak ziren azaltzen du (tintontzia zuten). Zigorrei buruz mintzatzen da (eskolan gelditu behar, belarrietatik tiratu etab.)

423. Ez zen dirurik izaten (IGA-026/007)

Lehenago ez zen dirurik izaten. Dendan libreta batean apuntatzen zuten ordaindu beharrekoa. Zerria hil eta saldu egin zuten, 440 pezetako zorra kitatzeko.

424. Kofradiak (IGA-026/009)

Azienden kofradian, bi enkargatu izaten ziren, baserriz baserri joaten ziren aziendak ikuskatzen eta hiru mailatan kalifikatzen zituzten; gero, hiltzen

baziren eta enkanteetan horren arabera ordaintzen baitzen. Jendearen kofradia, hildakoei mezak ateratzeko omen zen.

425. Zeramika fabrika (IGA-026/010)

Igantzín zeramika fabrika izan omen zen Bentetan; Belarra izena zuen. Ez zuen martxan ezagutu.

426. Zeta fabrika (IGA-026/011)

“Sederia” izan zela entzun du. Sunbillako mugan Sederiko borda dago

427. Saltzaile ibiltariak (IGA-026/013)

“Mostrero” erraten zitzaíen saltzera etortzen ziren Etxalarko bati eta frantses bati.

428. Joxeparen aurkezpena (IGA-028/001)

Joxepa ígantziarra da eta elkarrizketa hau egin díogunean 73 urte dítu. Euskaraz aritzen ziren etxean, baina eskolak gaztelaniaz ízaten ziren. Kalean ere gaztelaniaz aritzen zen; irakasleek erraten zieten baserritarrek euskaraz egiten zutela baina herritarrek gaztelaniaz egin behar zutela, bertze maila batekoak zirela.

429. Joxeparen ikasketak (IGA-028/002)

9 urte zituela, bere ahizparekin batera Sunbillarat joan zen Joxepa eskola frantses batera, eta handik urte batera, Frantziarat joan ziren ikastera. Ikasturte osoa ematen zuten bertan eta udara arte ez ziren etxerat bueltatzen. 14 urterekin bueltatu eta adminístrazioa ikasi zuen Irunen eta Donostian.

430. Buelta Ígantzirat (IGA-028/003)

1971an ezkondu, lana utzi eta Ígantzirat bueltatu zen Joxepa. Gero, seme-alabak izan eta Ígantzín aritu zen lanean.

431. Herrirat berriz egokitzen (IGA-028/004)

Aunitz kostatu zitzaion Joxepari herriko martxara berriz egokitzea; bera hagitz mugítua zen eta Ígantzín ez zegoen deus. Ez zegoen ohíturarik kalerat ateratzeko, bakoítza bere etxean aritzen zen lanean.

432. Baserritarrak euskaraz, kaletarrak gaztelaniaz (IGA-028/005)

70eko hamarkadan, mutilak normalki euskaraz aritzen ziren, eta neskak, baserritarrak baziren, euskaraz aritzen ziren eta, kaletarrak baziren, aldiz, gaztelaniaz.

433. Euskararekiko kontzientzia (IGA-028/006)

70eko hamarkadan, euskararen aldeko mugimendua sumatzen hasi zen herrian, eta Joxepa hizkuntzarekiko kontzientzia hartzen hasi zen.

434. Ígantzíko eskola gaztelaniaz (IGA-028/007)

Ígantzíko haurrak euskaraz aritzen ziren etxean eta aunitzek ez zekíten gaztelaniaz. Ígantzíko eskola gaztelaniaz zenez, haur batzuek arazoak ízaten

zituzten. Joseparen ama Igantziko Udaleko batzorde batean zegoen garai hartan, eta arazoaren berri eman zion Joxepari. Diputazioan euskaraz zekien norbait eskatuko zutela aipatu zion. Joxepari egin zioten eskaintza eta azkenean bertze batek postua hartu arren, hala hasi zen euskararen aldeko mugimenduan.

435. Eskolarako euskaraz zekien langilea (IGA-028/008)

Diputazioan Joxeparen amaren batzordeko proposamena onartu eta eskolarako euskaraz zekien norbait bilatu zuten, baina Joxepa baino lehen bertze norbait aurkeztua zen horretarako. Halere, eskola ez zenez ofiziala, diputazioak ez zien laguntza zuzenean eman nahi izan, eta, horren harira, Elizaren bidez egin zuten kudeaketa. Hala, apezari aipatuta, bertako katekista hartu zuten eskolarako.

436. Igantziko ikastolaren hasiera (IGA-028/009)

Proiektu berri hori gauzatzeko, batzorde ttiki bat sortu zuten, eta Joxeparen senarra izendatu zuten batzordeko presidente. Eskolako eraikinean bertan gela bat moldatu eta dena antolatu zuten. Hala, 1973-74ko ikasturtean andereño berria hasi eta haurrak euskaraz ikasten hasi ziren.

437. Gurasoen desadostasuna euskaraz ikasten segitzeko (IGA-028/010)

Harrera ona izan zuen ikastolak herrian: 20 haur baino gehiago hasi ziren klasean. Haur Hezkuntza euskaraz ikasten zuten ikastolan, baina Lehen Hezkuntzak gaztelaniaz izaten segitzen zuenez, hizkuntzaren arazoa ez zen desagertu. Hori zela eta, eskola euskalduntzeko lanetan hasi ziren, baina guraso gehienak ez ziren ados; uste zuten hurrek bestela ez zutela gaztelaniaz ikasiko. Tentsio handiko bilerak egin zituzten gaia lantzeko.

438. Gurasoak konbentzitzen (IGA-028/011)

Guraso guzietatik, 3 bakarrik agertu ziren euskaraz ikasten segitzearen alde. Bilera hagitz gogorrak izan zituzten euskararen gaiarekin, eta, hondarrean, hezkuntza departamentura jo zuten. Bertako inspektorea katalana zen eta ongi ulertu zuen arazoa, berak arazo bera izana baitzuen Katalunian. Hala, Igantzira joan eta ados ez ziren gurasoekin solastatu zen inspektorea, baina kontra ziren gurasoendako ez zen aski izan. Halere, poliki-poliki guraso horiek konbentzitzea lortu zuten.

439. Eskolan hasita, arazorik ez (IGA-028/013)

Behin haurrak eskolan euskaraz hasita, gurasoek ikusita haurrak kontent joaten zirela eta nota onak ateratzen zituztela, ez zuten inoiz gehiago arazorik izan.

440. Euskaraz ikastearen kontra ziren gurasoen beldurra (IGA-028/014)

Kontra ziren gurasoen kasuan, batez ere amen kasuan, beraiek bizitako egoerengatik ez zuten nahi izaten seme-alabek euskaraz ikastea. Beraiek lanera kanpora joan zirelarik, lotsa izan zuten gaztelaniaz ez jakiteagatik, eta ez zuten seme-alabek arazo bera izaterik nahi.

441. Ikastolaren finantzazioa (IGA-028/015)

Ikastolaren proiektua aitzinerat ateratzeko diputazioak diru-laguntza ematen zuen arren, ez zen aski izaten, eta ostatua paratzen zuten diru gehiago lortzeko.

442. Ikastola eta eskola fusioatzea (IGA-028/016)

Ikastola eta eskola integratu zirelarik, ikastoletako irakasleek titulua atera behar izan zuten. Hala, irakasle horiei postua ofizial bihurtu eta eskolako lantaldean sartu zituzten. Modu natural batean fusioatu ziren ikastola eta eskola.

443. Joxeparen parte-hartzea (IGA-028/017)

Joxepa buru-belarri aritu zen lanean Igantzin haurrek euskaraz ikasi ahal izan zezaten.

444. Berako Ricardo Barojan ere gaztelaniatik euskararat (IGA-028/019)

Igantziko eskolakoak Berako Ricardo Baroja eskolakoekin aritzen ziren elkarlanean. Igantziko haurrak gero Berarat joaten zirenez ikastera, Beran ere euskaraz ikasteko modua izatea nahi zuten. Joxeparen alaba ere Ricardo Barojara joan zen, eta han gaztelaniaz hasi bazen ere, gerora euskaraz ikasteko aukera izan zuen.

445. Euskararen aldeko mugimendua Igantzin (IGA-028/020)

Ikastola eta eskola euskalduntzeko garai hartan, Igantzin euskararen aldeko mugimendua sumatzen hasi zen. Helduek euskara ikasteko gau eskolak ere antolatu ziren Igantzin eta Joxepa aritu zen bertan alfabetatzen.

446. Euskal dantzak Igantzin (IGA-028/021)

1977an, Juanito Telletxea lesakarra Igantziko Nafarroako Kutxan aritzen zen lanean. Bera mutilei euskal dantzak irakasten hasi zen. Geroxeago, bere bidez, hurrei euskal dantzak irakatsiko zizkien gazte bat bilatu zuten, eta hala, euskal dantza giroa sortu zen Igantzin. Haur gehienek ikasten zuten dantzatzen.

447. Biltoki elkarte (IGA-028/022)

1977an ere Biltoki elkarte sortu zen Igantzin; Joseparen senarra izan zen presidentea. Udalak bazuen egurra altxatzeko lokal bat; elkarte martxan paratzeko lokal hori eskatu zuten, moldatu eta elkarte abiatu zuten. Biltokik beti izan du euskararekiko kontzientzia handia.

448. Olentzero eta Igantziko eskea (IGA-028/023)

Biltoki elkartearen bidez hasi ziren Igantzin Olentzero ospatzen. Halere, hori baino lehenago, Joxepak betitik ezagutu du Igantzin eskea.

449. Bertsolaritza eta musikarik ez herrian (IGA-028/024)

Garai hartan, herrian ez zen bertsolaritza edo musika mugimendurik sumatzen, baina Joxeparen amaxiren etxean bazuten bertsolaritzarekiko afizioa; irratan aditzen zuten.

450. Euskal Telebista Igantzina (IGA-028/025)

80ko hamarkadan, Euskal Telebista paratzeko aukera bazen, baina ez zuten laguntzarik ematen antena herrian paratzeko. Hala, herritarrak antolatuta, dirua lortzeko ostaturik paratu eta Frainen antena bat paratu zuten.

451. Garai hartan egindakoarekin konforme (IGA-028/027)

Joxepa konforme dago garai hartan egindakoarekin. Merezki izan du egindako lan guztiak.

452. Gauzak egiteko gogoa (IGA-028/029)

Garai hartan, gauzak egiteko gogoa zuten. Deus ez zuten eta dena egiteko zegoenez, gauzak egiteko gogoa zuten. Egun, Joxepak ez du halako jarraitasunik ikusten gaur egun.

453. Oskarren aurkezpena (IGA-029/001)

Igantzina da Oskar eta 62 urte ditu. Etxean euskaraz aritzen ziren, baina eskolan gaztelaniaz ikasi zuen. Lesakan ikasi zuen; han erdal giroa zegoen. Igantzina ere bera gaztea zelarik zegoen giroa nahiko erdaldu zuten; nesken artean ere erdaldu zuten. Oskar emaztearekin gaztelaniaz solastatzen zuten, baina egun batean hizkuntza ohitura aldatzea erabaki zuten eta beren artean euskaraz egiten hasi ziren. Gainera, alfabetatzea erabaki eta Irungo AEKn eman zuten izena.

454. AEKn bi korrante ezberdin (IGA-029/003)

Irungo AEK-koek Bortzirietan euskaltegi bat sortzeko ideia eman zioten, eta halaxe hasi ziren Oskar eta Mikel Legarra; jende gehiago ere elkartu zuten proiekturik. Malerreka-koekin harreman hagitik onak zuten, eta elkarrekin prestatzen zituzten klaseak. Gero, Nafarroa mailan hasi ziren koordinatzen eta Iruñeko AEKrekin hasi ziren harremanetan, Nafarroako bileretara joaten. Han, bi korrante ezberdin ikusi zituzten; baziren bi bide ezberdin garatu nahi zuten euskaltegiak.

455. Oskarren esperientzia euskaltegian (IGA-029/004)

AEKren barneko gorabeherak alde batera utzita, ikasturtearen prestaketarekin jarraitu zuten Bortzirietan, eta ehun eta piku ikasle bildu zituzten klaseak emateko. Oskarri Berako alfabetatzeko taldea egokitu zitzaion, 16 bat lagunekoa. Geroago, Igantzina Udaleko dimisio bat zela eta, euskaltegia utzi eta udalean sartu zuten Oskar.

456. Mikel Legarrari buruz (IGA-029/005)

Mikel Legarraren lana azpimarratzen du Oskarrek; eskualdean lan handia egin du euskararen alde.

457. Igantzina apezaren lana euskararen inguruan (IGA-029/006)

Oskarrek 16-17 urte zituelarik, Juan Bautista Irazoki apezak joan zuten Igantzina; euskarari zegoenez, pertsona hagitik garrantzitsua izan zuten herrian. Ikastolaren sorreran lagundu zuten apezak, baita Biltoki elkartearen sorreran edota Euskal Telebista ikusi ahal izateko antena paratzeko lanetan ere.

458. Alfabetatzeko klaseak (IGA-029/007)

Irungo AEK-ko alfabetatzeko klaseetan, gehienak emakumeak ziren eta irakaskuntzaren mundukoak. Klase haietan, euskara ikasteaz gain, kontzientzia politiko eta soziala ere garatu zuten. Aberasgarria eta polita izan zen Oskarrendako.

459. Euskaltegiaren sorrera (IGA-029/008)

Euskaltegia sortzeko prozesuan, proiektua garatzeko jendea bilatzea izan zen lehenbiziko urratsa. Lehenbiziko urtean, inprobisazioa izan zen nagusi, irakasleek ez zuten prestakuntzarik. Zeudenen artean lana banatu, eta bertzerik gabe, hasi egin ziren.

460. Euskaltegiko irakasleak (IGA-029/009)

Euskaltegiko irakasleak zeintzuk ziren aipatzen du Oskarrek.

461. Klaseak prestatzeko materiala (IGA-029/010)

Klaseak prestatzeko, Txillardegiaren gramatika liburua erabiltzen zuten. Geroxeago, AEK-ko liburu batzuk ere erabili zituzten; dena dela, modu hagitx prekarioan hasi ziren.

462. Euskaltegiaren egoitzak (IGA-029/011)

Euskaltegia non hasi zen aipatzen du Oskarrek. Lesakako Bordieneko lokal batean lehenbizi, Lesakako ikastola ondoko lokal batean ondotik eta Lesakako Alondigan gero. Matxinbeltzenean finkatu zuen euskaltegiak egoitza azkenean.

463. Matxinbeltzenearen sorrera harrigarria (IGA-029/013)

Matxinbeltzenea bezalako etxe handi bat martxan paratzea harrigarria iruditu zitzaion Oskarri.

464. Euskararekiko aldaketa poliki-poliki Igantzin (IGA-029/014)

80ko hamarkadaren erditik aitzinerat, D ereduarekin eta gazteen kontzientziazioarekin, euskararekiko aldaketa sumatzen hasi zen Igantzin.

465. Mugimendu handiko garaia (IGA-029/015)

Garai hartan, mugimendu handia zegoen: ikastolaren sorrera, euskaltegia, Bidaso eguna... 1985ean euskara mankomunitatearen sorrerarekin hasi ziren.

466. Bidaso eguna (IGA-029/016)

Biltokik antolatu zuen Bidaso eguna. Eskualde osoko elkarteak elkartzen ziren eta besta kultural gisakoa antolatzen zuten: artisauak, pilota-partiduak, dantzak, abesbatza, musika... Sunbilla, Igantzi eta Hendaian antolatu zuten besta hori.

467. Euskara mankomunitatearen sorrera konplexua (IGA-029/017)

Euskara mankomunitatearen sorrera nahiko konplexua izan zen: Nafarroako lehenbizikoa izan zen, eta gainera 5 herri biltzen zituen. Izan zuten zailtasunik handiena eredu mota erabakitzea izan zen. Udalak konbentzitzen ere lana izan zuten.

468. Ttipi Ttapa aldizkaria lehen eta orain (IGA-029/020)

Ttipi Ttapa aldizkariaren sorreraz solastatzen da Oskar. Egungo aldizkaria eta hasierakoa hagitz ezberdinak ziren. Hasierakoak Argia aldizkariaren eredua segitzen zuen, nolabait: ekologia, feminismoa, arazo sozialak... lantzen ziren. Gero, poliki-poliki aldatu eta herrietako berriak ematen hasi zen. 1987. urte inguruan egin zuen Oskarrek lehenbiziko kolaborazioa Ttipi Ttapa aldizkarian: Igantziko saskigileei buruz idatzi zuen.

469. Oskarren kolaborazioa Ttipi Ttapan (IGA-029/022)

2005 urte inguruan utzi zion Oskarrek Ttipi Ttapan kolaboratzeari. Hondarrean, lan gisakoa bihurtua zen eta aunitz kostatzen zitzaion. 18 bat urte aritu zen kolaboratzaile.

470. Euskaltegiko garaia nostalgiaz (IGA-029/023)

Euskaltegiaren garaia nostalgia pixka batekin ikusten du Oskarrek. Garai hartan izan zuten indarra eta gogoia azpimarratzen ditu.

471. Lortutakoaz harro (IGA-029/025)

Gibelerat begira, harrotasuna sentitzen du Oskarrek egindakoaz eta lortutakoaz.

472. Haur eta gazteak euskaraz (IGA-029/026)

Pasadizo bat kontatzen du Oskarrek. Gipuzkoatik Bortzirietara bizikletaz etortzen den batek aipatu zion harritua gelditzen dela bertako haur eta gazte guziak euskaraz solasean adituta.

473. Bortzirietan euskaltegirik ez (IGA-029/029)

Oskar Irunera joan zen euskaraz alfabetatzera Bortzirietan ez zegoelako euskaltegirik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com